

## Areatzako Bandak kontzertua emongo dau hilaren 30ean

12. orrialdea

## Atutxa bigarren Euskadikoan

Aitzol Atutxa aizkolari dimoztarra Euskadiko Lehen Mailako Aizkolari Txapelketan bigarren geratu zan abenduaren 8an Elgoibarren jokaturako finalean. Iñaki Azurmendik eroan eban txapela. Astebete lehenago, abenduaren 1ean, txapela lortu eban Arbizun jokatu zan Munduko Abiadura Txapelketan. **11. orrialdea**



## Alvaro Rabelik Naia India gorrietan nobelea kaleratu dau

13. orrialdea

TOKIKOM

# begitu

arratia ubide zeberio

# 198

2013ko abenduaren 18a  
hamabostekaria  
[www.begitu.org](http://www.begitu.org)

## Berrogeta hamar urte beteta bere proiektuak sendotuten dabil Batz



**1** 963ko abenduaren 21ean Madrilan, Dima, Igorre, Zea-nuri, Bilbo eta Basauriko 15 laguneren eskakizuna onartu zan eta kooperatiba erregistroan sartu zan Batz.

Mende erdi beranduago osasun onean jarraituten dau Mondragon taldeko kooperatiba honek, Ander Bilbao presidente, Hobekuntza eta Kudeaketa taldeko Karmelo Uriarte

eta Giza Baliabide Saileko Amaia Fernandezen arabera.

Asko hazi da Batz eta mundu zabalean daukaz lanlekuak, baina ingeniarietza eta balio erantsidun beharra Igorren mantendutena dau. Eta sasoi txar honeetan gehiago hazten ez bada be, bere proiektuak asentetan dagozala dino Batzeko presidentek. Lanpostuak mantendutena dira: Fagorreko langile batzuk hartu ditue eta talde bat dago

formazinoa jasoten zezeilan erretiroa hartuko dabenak ordezkatzeko.

Sasoi honeetako gorabeherai aurre egiteko, dibersifikazinoa behar dala uste dau Ander Bilbao. Momentu honetan, automozinorako trokelgintza eta konponenteak, eta energia barriztagarrietako elementuak egiten ditu Batz kooperatibeak. **8. eta 9. orrialdeak**

### ARRATIA

## "Arratia Elikadura Subirautzaren alde" topaketak Igorren

Hilaren 19an eta 21ean, "Arratia Elikadura Subirautzaren alde" izeneko III. Topaketak antolatu ditu Igitie Baserritar Agroekologikoen alkarteak. Honeen barruan, Gozaro alkarteagaz batera, eskola jantokietan bertako produktuak erabilteko proiektuaren gaineko eztabaida sortzeako berbaldiak antolatu ditue egunerako Igorren. Zapaturako, hilak 21, produktu agroekologikoen merkadua antolatu dau Igitiek. **7. orrialdea**

### ARRATIA

## Olentzero baino gehiago

Eskola umeak Olentzerogaz egoteaz gainera, Gabonetako parkeetan edota zine eta antzerkiaz gozatuteko aukerea izango dabe udalak eta alkarteak urteko azken hamabostaldirako antolatu daben eskeintza ugarian. Helduak be, umeak edo ume barik, egunotan zer egin topauko dabe. Hori dala eta, kontzertuak eta berbaldiak entzuteko, kirola egiteko edota poteoan ibilteko dagozan ziten barri emoteko, prestatu diran egitarauak dagoz jasota. **5. orrialdea**

### ARRATIA

## Lana topatzeko gidaliburua gazteentzat

Arratiako Udalen Mankomunidadeak beharra topatzeko gidaliburua argitaratu dau gazteentzat. Norberaren profil profesionalaren definizinoa edo zelan egin aurre alkarrizketa bateri azaltzen dira bertan. Liburuak herri administraziozko zein enpresa pribaduko webgune eta esteken zerrendak eskeintzen dauz. Ez bakarrik gazteentzat, lan barik dagozan guztientzat interesgarria izateko dago diseinatu gidaliburu hau. **5. orrialdea**

**Agirre**  
Pellet eta egur salmenta

616983613 (Iker)  
ikerdima@yahoo.com  
Igorreko Industrialdea F11-3B

**Olaetxe**  
OPTIKA ZENTRUA

- Graduazinoak
- Ikusmen terapia
- Ikusmen gitxitua
- Begiko tentsinoak
- Lentillen adaptazinoak
- Kiroletarako betaurrekoak

Gabon zorientsuak opa deusueguz!!

Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)  
94 657 70 03 - olaetxeoptiko@hotmail.es

**lana**  
bilatzeko gida

# IGTIE

## BASERRITARRAK ETA HONDAKIN ORGANIKOEN KUDEAKETEA

Zaborrik onena sortzean ez dana da. Holan da, gu zero zaborren alde gagoz, zenbat eta zabor gitxiago, askoz hobea. Gainera, batzuek zaborra ikusten daben lekuan guk hondakin organikoak ikusten doguz, eta hondakina ongari bihurtuten dogu konpostajearen bitartez. Konpostatzea naturaren zikloa ixtea da, lurrarena dana lurrari bueltatea. Dana dala, guk amalurraren errespetua aldarrikatzen dogunean lobby energetikoak 'gora negozioa!' oihukatzen dabe. Guk lurra elikatu gura dogu, eurak errauskailuak

elikatu gura dabez.

Europako Zuzentarauak esaten dau 2020rako birziklapen eta berrabilpen tasa % 50era heldu beharko dala. Igorren (adibidez), birziklapen eta berrabilpen tasa % 22koa estimatzen da, eta soilik errefuxaren % 3a konpostatzen da. Bizkaiko Foru Aldundiak 2016rako errefuxaren % 4a konpostatzea aurreikusten dau. Zifra honeek barregarriak dira, tristeak. Gure etxeko hondakinen % 40a inguru, materia organikoak osotuten dauala kontuan hartuta, argi dago konpostetako gure premia

altuagoa dala. Ondino gehiago, zero zaborrera hurreratzea ez da fede kontua, praktika kontua baino.

Austriako esperientziatik ikasi dau Larrabetzuk, eta ekimen interesgarria ipini dabe martxan. Udalak eta baserritar talde batek akordio bat adostu dabe hondakin organikoak kudeatzeko. Herri-tarrak hondakin organikoak bereizi egiten ditue (kontzientziagaitik zein zerga onurengaitik), nekazariak bildu eta euren lurretara eroaten ditue, eta han konpostatzen dabe. Udalak nekazariak bilketeagaitik eta garraioagaitik

ordaintzen deutse.

Honen antzeko esperientzia pilotoak, lehen sektorea bultzatzeko eta hondakin organiko

kudeaketea hobetuteko balio dabenak, arrakastatsuak suertatzen dira ingurumenaren, gizartearen eta ekonomiaren ikuspuntutik.



### TELEFONO INTERESGARRIAK

#### Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
S.O.S. DEIAK 112

#### Guardiako Farmaziak

**09:00etatik 22:00etara**  
**Abenduaren 16tik 22ra**

N. Arrieta Bereciartua. Lemoa. Atutxa Sailburua 1  
Tel.: 94 631 30 18

**22:00etatik 09:00etara**

Melero. Amorebieta-Etxano.

**Abenduaren 23tik 29ra**

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1  
Tel.: 94 673 93 95 eta 609 402 908

**22:00etatik 09:00etara**

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

**Abenduaren 30etik urtailaren 5era**

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15  
Tel.: 94 673 93 22

**22:00etatik 09:00etara**

Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.

Zeberioak ez dau guardiarik egiten.

**Urte osoan**

**22:00etatik 09:00etara**

Chicote. Kareaga Goikoa 50. Basauri.

#### Medikuak

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 11

**Areatza:** 94 631 71 52

**Bedia:** 94 631 34 13

**Dima:** 94 631 56 30

**Igorre:** 94 600 74 63

**Lemoa:** 94 631 31 16

**Ubide:** 945 45 03 61

**Zeanuri:** 94 673 91 49

**Zeberio:** 94 648 20 79

#### Udaletxeak

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 05

**Areatza:** 94 673 90 10

**Bedia:** 94 631 42 00

**Dima:** 94 631 57 25

**Igorre:** 94 631 53 84

**Lemoa:** 94 631 30 05

**Ubide:** 945 45 03 22

**Zeanuri:** 94 673 91 46

**Zeberio:** 94 648 10 79

#### Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

#### Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

#### Parketxea

94 673 92 79

#### Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

#### Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

#### Trenak

Euskotren 902 543 210

#### Bizkaibus\* 902 222 265

##### Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

##### Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

##### Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengo 22:15ean

Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

##### Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

##### Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

##### Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

##### Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

##### Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

##### Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

##### Artea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta 20:00.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

##### Bilbo-Artea

Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45.

Zapatuetan ez dago 05:45ekoa.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

##### Zeberio-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15 eta 17:45.

Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15, 14:15, 17:15 eta 20:15.

##### Bilbo-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15 eta 16:45ean.

Jaiegunetan (Arrigorriagatik): 10:40, 13:40, 16:40 eta 19:40ean.

##### La Union\* 94 427 11 11

##### Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandioak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandioak 18:30ean.

##### Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.



**Argitaratzailea:** ZERTU Kultur Elkartea.

**Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

**Telefonoa:** 94 631 73 14.

**Helbide elektronikoa:** [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

[www.begitu.org](http://www.begitu.org)

**Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

**Kudeatzailea:** Inigo Iruarizaga.

**Erredakzino taldea:** Ainhoa Duñabeitia, Irati Urien eta Jon Urutxurtu.

**Maketazinoa:** Inigo Iruarizaga.

**Publizidatea:** Inigo Iruarizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

**Banaketea:** Pablo Rodriguez eta Rut Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte eta Eneko Iriondo (Dima), Azibar Sagarna eta Iraitz Sagarna (Igorre) eta Ainhoa Mendia eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).

**Tiradea:** 6.600 ale.

**Inprimategia:** Iparragirre Editoriala.

### Babesleak:



Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)  
diruz lagundutakoa



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia  
Kultura Saila  
Departamento de Cultura



## ZEURE BERBEA

### Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskerronak, hausnarketak, burutazioak edota ideiak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntuak helarazoteko. Argitaratzeko derri-gorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea.

Entzuteko prest gagoz.

Hauxe dozu helbidea:

Zertu Kultur Elkartea

BEGITU aldizkaria

Herriko Plaza 24

48.142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak:  
begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.

## GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

### Egostu



Elikagaiak (landareak, kinpulkak barbarako, edo sagarrak moduko frutak, edo patatak lako ortuariak) denporeak jo egiten ditu eta ondorioz jateko sasoirik onena galdu egiten dabe. Gauza bera gertatzen jakie, boltsa barruan aire barik itxi ezker, zein gainean pisua dabela gorde ezkekitino. Orduan, jangarriak usteltzen hasten dira. Bardin-bardin pasetan jake personeari be oinakaz, barbarako udan, bero handia danean. Honakoa esaten da-eta holakoetan: Egostuta jeukoazat/jeukonazat hankok!

## ERETXIA

### Opari teknologikoak, bizitza teknologikoa



CLARA LUJA AZPIRI

Kazetaria

**G**abonak hur dagoz eta horregaz batera, opariak. Sarri askotan teknologia oparitzen dogu, batzuetan eskuko telefonoa, besteetan tablet bat edo e-book bat... Inoz ordenagailua be bai. Opari ona da, erabilgarria eta beti arrakasta handia daukana, batez be jente gaztearen artean. Gero eta gazte-ago hasten da jentea eskuko telefonoa erabilten eta gero eta gauza modernoagoak eskatzen ditue umeak bakarrik dagozanean.

Orain dala gitxi irakurri neban hogeta piku urteko gazteok garala internet eta eskuko telefono bako bizitza ezagutu dogun azken belaunaldia. Teknologia gauza on asko ditu, jakina; baina txarrak be bai.

Alde batetik, teknologia beste personakaz kontaktuan egotea errezago egiten dau eta arazo bat dagoanean laguntza jasotea be errezagoa da. Holan, nahiz eta herri txiki baten bizi, munduagaz konektauta egon daiteke eta beste lekuetan bizi diran personakaz hartu-emonen mantenidu. Honek garrantzi berezia izan daike herri txikietan, garraio publikoa amaitzen danean edo mendian galdu ezker. Gainera, teknologia honegaz informazio piloa dago eskura, lanerako zein eguneroko bizitzarako.

Dana dala, teknologia alde txar asko be baditu. Hau erabilten oso gazte hasten diran personak askotan uste dabe teknologia barik ezin dirala egon, eta kasu batzuetan teknologia adikzinoa sortu leike. Erabiltzaileak ansiedadea sentiduten dau konektauta egon ezean, eta klasetik edo lanetik ateratzean telefonoari begirartutea da egiten dauan lehenengo gauza.

Gainera, denpora asko pasetan da traste honeekaz. Bakarrik dagozan denporearen parte handi bat pasetan dabez makinokaz,

batzuetan beste personakaz egon be egin barik. Gero eta normalagoa da ikustea bikoteak tabernetan, bakotxa bere eskuko telefonoagaz, besteari begiratu be egin barik. Denpora hau email-a begiratzen edo twitterrean idazten pasetan dabe. Modu ironiko baten, hain konektauta egotean, besteakandik deskonektauta gaitekez.

Beraz, aurten teknologia oparitu baino lehen, gogoratu mundu oso bat egon dala tramankulu honek baino lehenago, eta guztiak modernoan izatea ez dala beharrezkoa. Bai, gauza on asko ditue teknologia baina ezin dogu itxi makina batzuek gure bizitza menperatzen.

Olentzerok mila gauza eder ekarri leikez!

**BATZ** 50 urte

BATZ, S. KOOP.  
Torrea Auzoa, 32  
48.140 IGORRE (BIZKAIA)

IZAN GINAN...  
...BAGARA ETA IZANGO GARA

Enbata  
Batzen gaitu

MONDRAGON

## LUMATUTEN

GONTZAL  
MENDIBILBadator  
Olentzaro

**A**ro honeetan, urtero legez guztion pozerako eta ilusino barritan jatorri Olentzaro. Aurten, pobrea gozatu be, etorri badator. Ba ete dakigu beronen esangurea?

"Olentzaro" dogu erabiliena, baina esan beharra dago erdal kutxuz beterik daukaguna bera dala. Izatez, ero atzizkia, erdal "oficio" besterik ez dogu. Holan ba: Panadero, lechero, bodeguero, butanero, jardiner, carbonero... eta gainetiko ofizioak doguz. Eta jakina, umeen irudian: Olentzaro, egubarritan opariak ekarten deuskuzan basoko ikazgina da.

Nire umearoan ez genduan ospatuten Olentzaro edo Olentzarorik, orduan Ekialdeko edo Orienteko erregeak ziran opariak edo ikatza ekarten euskuenak. XX. medearen erdialderantz eta Arratian 60. hamarkadatik aurrera sartuko zan, Papa Noel edo Santa Klausen parekoa dogun Olentzaren irudia.

Baina gaurko ikur eta zentzu komertzial honek, beste esangura sakonagoak daukaz. Seguru, Olentzaro dogu izenik zuzenena, Oles egiteko aroa, Olesa (jaila, ospakizuna...) eta zer da ba ospatuten doguna? Eguzki barriaren jaiotzea.

Antxinako garaietan, gizakien ospakizunak eguzkiagaz loturea eukien, eta eguzkia, unerik goren, edo behearen egoanean, ospatuten eben hemengoak eta hangoak. Udaren beroan, gaurko San Juan bezperan eguzkia goian eta suaren eritualak lurrean. Egu-gain: ekain. Egu: Jaungoikoa dogu. Neguaren hotzean, eguzki barriaren etorreran, egubarritan, oleska, jailak, kantuak eta jantzak etxeko sua lagun, eta halan ba... Olentzaro (Omentzaro).

Bada "onen aroa", Omentzaro izenaz bataituten dabenik be, eta azkenik Frantziako Noel: Gabonak doguz, eta honen deribazioa: Olen. Halan be, gehiegitan gertatuten dan moduan, erderearen eragina handiegia da gurean.

Beraz, zeru eta lurren arteko loturan, goiko eguzkia eta beheko sua. Gandiaga olerkariak esaten eban legez: "Olentzaro, subilaro, mukur bila joaten gara Gaboneko sutarako".

## ZERTZEAN



## Ezinbestekoak

## ARITZ ZUBIATE GARAI IURREBASO

Igor Urrutikoetxea Bilbao lagun eta burkideari  
**L**ehen, urruti ikusten genuen "zure gerra", gurea izango ez balitz bezala. Ezkerra? Sozialismoa? Langile borroka? Jantzi arrotzak karlisten lurralde hauetan.

Denborak eta bizimoduak zure lubakira ekarri gaitu, gerra, egon badagoelako, eta momentuz, besteak ari dira irabazten.

Orain, konturatzen gara, zurekin (eta zure antzekoekin) topo egingo ez bagenu inoiz ez genukeela horrelakorik ikasiko

Zu (eta zure antzekoak) zarete ezinbestekoak, bidea erakutsi diguzuelako gaua ilunaren beltasunean galdu ez gaitezen, iparra aurki dezagun.

\* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eremuan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITU argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidean.

## BEGI TXINDORRA

**A**sto jana euki eben Ubideko zahar-gazteak, zemendiaren 30ean. Tabernan ibiltzen diranen artekoa izan zan, hogeta hamabost persona inguru. Umi bigarrenaren 5ean hasi zan kontua. Egun haretan jan eben lehenengo astoa eta. Aurtengoa da jatorri honek egiten dabean lehenengo urtea, baina gustau eta datorren urtean be egiteko asmoa daukie. Aspaldian euki dabe buruan astoa jatea, eta aurten aukerea eukita aprobetxau egin dabe. Lagunetako batzuk astoak daukiez, eta astoetako baten jaubeak azaldu dauanez, asto arra urtetan jakienean jan egiten dabe. Sano gozo ei dago. Izanik ez dabe euki asto biak, ia hirugarrenak.

Ai... "asto" kuadrilea asto jaten. Kanibalismoa ete da? Kar, kar, kar.

*Irati Urien*



**Gorosti**  
LORAZAINTZA  
Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa  
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
[gorosti@gorostiscsl.com](mailto:gorosti@gorostiscsl.com)

**agoa**  
hagin klinika  
Ortodontzia  
Implanteak  
Estetika  
Marina Urigoitia Aldekoa  
Odontologia  
Bidebarri 1. behea  
48140 Igome-Bizkaia  
T. 94 631 50 39  
Kalegorri Zubiako 101  
R.P.S. 21/06

**Olaetxe**  
OPTIKA ZENTRUA  
Graduazinoak  
Ikusmen terapia  
Ikusmen gibatua  
Begi tentsinoak  
Lentillen adaptazinoak  
Kiroletarako betaurrekoak  
Sabinu Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)  
T. 94 657 70 03 - [olaetxeoptika@hotmail.es](mailto:olaetxeoptika@hotmail.es)

ARRATIA

# Aspertzeko aukerarik ez Gabonetako oporretan

Ekintzaz betetako egitarauak antolatu ditue gure eremuko herrietan, batez be eskola umeak eta oporretan dagozan guztiak disfrutau dagien urteko azken hamabostaldia. Umeak Olentzerogaz egoteko aukerea herri guztietan izango dabe, baita Gabonetako Umeen Parkeetara joateko be herri gehienetan. Horrezaz gainera, antzerkia, pelikulak, kontzertuak, kirola... aspertzeko aukerarik ez. Hemen ez dira amaitzen baina ekintza guztiak eta urte barriagaz datozenen barri hurrengoan izango dozue.

**Erredakzinoa**

**Arantzazu**

**Abenduak 24,** 12:00etan, herriatik Olentzero kante-tan. Olentzerok opariak bananduko dauz eta gaztainak be egongo dira.

**Abenduak 26,** 15:00etan, urtekerea itsas museora. Doban herriko jente guztiarentzat. Helduentzat bisita gidatuak eta umeentzat ginkana eta jolasak.

**Abenduak 28,** Euskal Selekzinoa-Peru partidua ikusteko San Mamesera urtekerea. Jente nahikoak izena emon ezker.

**Abenduak 30,** 10:00etan, urtekerea Gabonetako Umeen Parkera. Bazkaria eroan.

**Urtilak 2,** 15:00etan, urtekerea Max Center-eko bolalekura eta gero zinera.

**Areatza**

**Abenduak 20,** 17:00etan Buruko pañeluak ipinten ikasteko tailerra. 2002-2006 urteen bitartean jaiotakoentzat. Ludotekan.

**Abenduak 23,** Talo tailerrak frontoian, 11:00etan 2007-2010 urteen bitartean jaiotakoak eta 12:15ean, 2002 eta 2006 urteen bitartean jaiotakoak.

**Abenduak 24,** 17:00etan, Olentzeroren etorre-rea plazan. Guraso Elkar-teak antolatuta.

**Abenduak 26,** 18:30ean, Txotxongilo antzerkia Ipuin magikoak. Udal aretoan.

**Abenduak 28,** 19:00etan Ping-pong eta dardo lehiaketea Gaztelekuan. Ostein afaria.

**Abenduak 29,** 10:00etan Gabonetako Umeen Parkera urtekerea 12-17 urte bitarteko gazteak. Autobus geralekuan.

**Abenduak 30,** 19:30ean, Areatzako Bandak urte amaierako kontzertua.

**Artea**

**Abenduak 24,** 17:00etan, Musika Eskolakoak Olentzero kantetan auzoz auzo. 19:00etan, Olentzerori harrerea plazan. Musika Eskolak, Guraso Elkar-teak eta Udalak antolatuta.

**Bedia**

**Abenduak 20,** 17:00etan, *Iriien lagunak* ikuskizuna.

18:30ean, txorizo eta turroi bana-tzea Elexalde Jubiladuen Alkartearen eskutik.

19:00etan, korru-jantzak. Bediako korru-jantzen taldea.

**Abenduak 23,** 17:00etan, Gabonetako tailerrak amaitu eta Jandoniz nagusien etxera Gabon kantak kantetan. Liburutegian.

**Abenduak 24,** Olentzero. 09:30ean, plazan hasita auzorik auzo kantuan. 13:30ean, Olentzero plazara joango da umeakaz egoteko. Itxaron bitartean gaztain jana.

**Abenduak 27,** 10:00etan, urtekerea Durangoko Gabonetako Umeen Parkera eta ibilaldi bat txu-txu trenean.

**Abenduak 30,** 17:30ean, zinea, Gabonetako pelikulea liburutegian.

**Dima**

**Abenduak 18,** 17:00etan, Gabonetako tailerra: Kandilak. Ludotekan. Bakotxak bere kristalezko botea eroan behar dau.

**Abenduak 24,** 17:45ean, Olentzero jai. Eleizan batu.



**Urtilak 2,** 19:00etan, Musika Eskolako Gabonetako ekitaldia eleizan.

**Igorre**

**Abenduak 18,** 19:00etan, Arratiako Musika Eskolako ikasleen kontzertua Lasarte Aretoan.

**Abenduak 19,** 19:30ean, Luzetu Barik film labu-

rren lehiaketearen sari banaketea. Kultur Etxean.

**Abenduak 20,** 19:30ean, Euskera Arloak antolatuta, Igorre kantari kantu-pote herriko tabernetan zehar.

**Abenduak 22,** 09:30ean, Turroi eguna Motxoganen eskutik.

20:00etan Oihan Vega Lasarte Aretoan. *Zergaitik praktikatzen dugu sexua erderaz* bakarriketea.

**Abenduak 23,** 19:00etan, Arantzarte Dantza Taldea Lasarte Aretoan.

**Abenduak 24,** 12:00etan, Olentzero. Laurinetik.

**Abenduak 26,** 20:00etan, AMEEK antolatuta, Zeaniko Antzerki Taldeak *Zer ote darabil Tomasak?* antzezlan. Gero, Gabonetako otzarearen zozketea. Lasarte Aretoan.

**Abenduak 27,** 11:30etik 13:30era eta 16:30etik 19:30era, Gabonetako Umeen Parkea. Motxoganen tailerrak. Aterpean.

19:00etan, pelotea. Kadete txapelketea: Lejarza eta Ibarrondo vs Estrada eta Eskalona. Ostein erakustaldia: Imanol Agirre eta Mikel Goñi II vs Juantxu Koka eta Xabier Galarza.

**Abenduak 28,** 20:00etan, Luis Iruarizaga Abesbatza eta Begi Argiak Durangoko Ganbara Abesbatza Lasarte Aretoan.

**Abenduak 30,** 17:00etan Jostailu FERIA Zastaparrak, Eizu Kiñuk eta Alkar Ezagutuzek antolatuta.

**Abenduak 31,** 11:30ean, VI. San Silbestre lasterketa. 11:00etan izen emotea.

**Lemoa**

**Abenduak 19,** 10:00etan, JB Eguzkitza Meabe Ikastetxeak antolatuta gaztaina eguna eskolan, ume eta gurasoentzat.

18:00etan, Arratia Musika Eskolako piano eta trikititza ikasleen entzualdiak Jubiladuen Etxeko goiko aretoan.

**Abenduak 20,** Goizean zehar, JB Eguzkitza Meabe Ikastetxetik Olentzero eta Maridomingi udaletxera eroango ditue eta ondoren ikuskizuna egongo da eskolan.

**Abenduak 24,** 11:00etan, udaletxean. Auzorik

auzo Olentzerogaz batera Gabon kantak kantau eta Elizondon saldea eta txokolatea bananduko da Ehiza eta Arrantza alkartearen eskutik. Elizondoko Kultur Gunean Olentzerogaz egoteko aukerea egongo da. Gozokiak ume guztientzat. Iluntzean, Harriketarrak Gazte Asanbladaren eskutik, Olentzero Gaztetxera helduko da.

**Abenduak 27,** 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara Lemoako Haur Parkea Lemoako kiroldegian.

18:00etan, "Dantza kasting": umorea, antzerkia, jantza, jolasak... kiroldegian.

19:00etan, txiste poteoa Kresala tabernatik.

**Abenduak 31,** 16:30ean, Eneko Zamalloa memoria. Lemoako III. Gabonetako lasterketea Elizondon. Ondoren, herri poteoa.

**Ubide**

**Abenduak 21,** 16:00etan, herriko plazatik urtekerea mendira Olentzerori gutunak eroateko. 17:30ean, txokolate beroa Arraikoko aparkalekuan. 18:00etan, *Haurtxoaren zopa* antzerkia.

**Zeanuri**

**Abenduak 19,** 17:00etan, *Percy Jackson eta trixista lapurra* filma Kultur Etxean.

19:00etan, herri antzerki musikala *Zeanuriko ermitarik ermitena* parrokian.

**Abenduak 20,** 19:00etan, "Euskal Herria gaur, eta gero?" mahai-inguru politikoa Kultur Etxean.

**Abenduak 23,** 17:00etan, *Olentzaro* bideoa Gontzal Mendibilek azalduta Kultur Etxean.

19:00etan, Joko Alai Mendi Taldeak antolatuta, berbaldia "2013ko uda, eguzkiaren berotik (La Tiença de Benifassa) edurraren hotzara (Montblanc)".

**Abenduak 24,** 17:00etan, Piedadean Olentzaroren etorrerea. Harrerea frontoian.

**Abenduak 26,** 16:00etan, *Avatar* filma Kultur Etxean

**Abenduak 27,** 17:00etan, umeen herri kirolak frontoian.

20:00etan hasita kantu poteoa tabernaz taberna herriko txistulariakaz.

**Abenduak 28,** 17:00etan, 2013ko Auzoen arteko herri kirol lehia frontoian.

**Urtilak 2,** 18:00etan, *Tierra Prometida* filma Kultur Etxean. Gero, Zeanuriko III. Ipuin Lehiaketearen sari banaketea.

**Zeberio**

**Abenduak 20,** 18:00etan, Austarri Kultur taldeak antolatuta, "Tina" umeentzako ikuskizuna plazako ermitan.

19:30ean, balet ikuskizuna plazako aterpean.

**Abenduak 26,** 12:30ean, idi probak eta barauskarria Etxazon.

18:30ean, Paski eta Turruski pailazoak ludotekan.

**Abenduak 27,** 19:00etan, Austarrik antolatuta, Iñaki Perurenaren berbaldia plazako ermitan.

20:30ean, taloak Ermitabarrin.

**Abenduak 28,** Euskal Selekzinoa-Peru partidua ikusteko San Mamesera urtekerea.

**Abenduak 29,** 20:00etan, Zeberio VI. Frontenis Txapelketea. Zubialdeko frontoian.

**Abenduak 31,** 09:30ean, Austarri Mendi Taldeak antolatuta, Tontorrandira igoera eta hamaiketako bertan. Zubialdeko plazan.

Lemoako Karabie Gaztetxeko Harriketarrak Gazte Asanbladak bere programea dauka.



**Karabie Gaztetxea**

**Abenduak 20,** Harriketarrak antzezlan eskolan.

**Abenduak 23,** 19:30ean "Arratia eta Bizkaia Nabarrako Estatuan" berbaldia Aitzol Altuna historialariagaz.

**Abenduak 26,** 20:00etan, Txirene antzerkiak *Sarean zintzilikatuta* antzezlan.

**Abenduak 27,** 22:30ean, kontzertuak, Eskean Kristö eta Larregi.

**Abenduak 29,** 18:30etik aurrera, "Txatxamurke jai".

**Abenduak 31,** 11:00etan, futbol partidua.

**Urtilak 2,** 19:30ean, Askapeneko brigadistak emondako berbaldia "Venezuela".

## ARRATIA

## Presoen aldeko ekintzak Gabonetan

## Erredakzinoa

Arratiako Tantik-ek hainbat ekintza antolatu ditu Artean, Diman, Igo- rren, Lemoan eta Zeanurin euskal presoen eskubideen alde. Holan, hilaren 24an, Arteko plazan kon- zentrazioa egingo dabe kande- lakaz iluntzean eta Lemoan Tantz Tanta poteoa. Azken barikuan, hilak 27, konzentrazioak egingo dira Igorren eta Lemoan 19:30ean.

Zeanuriko auzoen arteko desa- fioa izango da abenduaren 28an eta bertan "Tantik batuta, urtaila- ren 11rako deialdia" egingo dabe Arratiako Tantik-ekoak. Hilaren 29an Diman, "eguerdi inguruan, Tantz Tanta Olatua egingo da". Amaitzeko Gabon Zahar egunean manifestazioa egingo da Igorren 18:30ean udaletxetik urtenda, gero, Dimako errepresaliatuen aldeko erifea zozketatuko da Jen- tilzubi Herriko Tabernan 20:30ean.

## ZEANURI

## Aurrekontu parte-hartzaileak

## Erredakzinoa

Bigarren urtea da aurrekontu parte- hartzaileak egiten dituala Zeanuriko Bilduk herrian, auzoko batzarretan jasotakoak gero Udalean proposatu- teko. Bildu txandaka hurreratu da au- zotarrengana eta guztira zazpi batzar egin dira: Asteria, Uribe-Otzemendi, Ipiñaburu, Alzuaga, Undurraga, Al- tzusta eta plazea. Helburua herriko diru kontuen barri emotea, eta diru hori herriarrak zelaz gastau gura da- ben ebazten ixtea proposatutea da.

"Auzo bakotxa errealidade bat dan heinean, eskakizun zein kejak desbar- dnak izan dira" dinoe Bildukoak presa ohar baten. Halanda be, gai batzuk auzo danetan aitatu dirala, eta batzuek has- serrea erakutsi dabela auzotarak. Zeanu- riko Udalaren alokairuko lonjearen kon- tua berbarako lotsagaritzat jo eben. Izan be, urte askoan lonjea euki arren, beste bat alokairuan euki dau hartuta Udalak. "Diru asko gastau da horretan eta orain gainera Udalaren lonjea egokituden in- bertidu beharko da diru gehiago".

Arkitektoak soldatea bajatutea eskatu badau be oraindino kobretan dauana ez dabe bat be ondo ikusten herriarrak Bilduren arabera, larregi dala eristen deustie eta. Beharginen lanpostu murrizketea be ez dabe logiko ikusten, beharizana dagoala pentsetan dabe-eta Bildukoak.

## BEDIA

## Alfus eta Incoesako beharginak burrukan jarraituten dabe

## Erredakzinoa

Abenduaren 11n, Bediako Alfus enpresako beharginak, enpresek Bilbon dituan bulegoen aurrean alkarreratu ziran bideragaritasun plana egin, lanpostuak mantenu eta hitzarmen barri bat egiteko helburua daukien negoziazioak eskatuteko. Ordurako negoziazio- norik egon ezean, hilaren 19an barriro be beste konzentrazio bat egiteko asmoa azaldu eben bertar- ututakoak.

Alfus-FCCko beharginak greban dagoz apirilaren 29tik. Garagari- lean epaileak atzera bota eban enpresa zuzendaritzek 16 be- hargin kaleratzeko arazoak eta 4 kaleratze onartu zituan. Beharginak enpresa zuzendaritzaren negoa- zinoetan hasteko borondaterik eza salatuten dabe behin eta barriro. Eusko Jaurlaritzako Lan Zuzenda-

ritz bitartekari lanetan dabil.

## Incoesakoak Justizia Jaure- gian

Egun bi lehenago, abenduaren 9an Incoesako beharginak Bil- boko Justizia Jauregiaren aurrean konzentrau ziran pankarta batez, Incoesa ez zarratuteko Eusko Jaurlaritzari eta Bizkaiko Foru Al-



Incoesa.

dundiari inplikazioa eskatzeko. Incoesako beharginak sei hilabete daroetz greban. Gaur egun Bedian ez dago produkzionik, gehiena Extremadurara eroan dabela sa- latuten dabe beharginak. Bulego teknikoak, barriz, Deriora aldatu dabez.

Eusko Jaurlaritzak miloe bi euro eta Foru Aldundiak 200.000 euroko laguntzak emon deustie Incoesari azken 5 urteotan dinoe beharginen ordezkariak eta enpresek Bedian ez dauala dirurik inbertidu, Extremaduran baino. Horregaitik, deslokalizazioaren kontrako Foru Araua apliketea eska- tzen dabe. Foru Aldundiak ikertzen dabilela laguntzok non inbertidu diran erantzun dau.

## AREATZA

## Batzokiaren 100 urteak ospatu dabez

## Erredakzinoa

Batzokiaren mendeurrena ospatu eben Areatzan abenduaren 8an bertako jeltzaleak. Mendeurrenean, EAJ-PNVko afiliatuakaz batera, Itxaso Atutxa Bizkai Buru Batzarreko presidentea egon zan ospakizun ekitaldian.

Haga barria eukan ikurrina igo eben lehenengotik; gero Damian Agirremotak Areatzako Batzokiaren eta honen fundatzaileen historia kontau eban, eta azke- nik Bizkai Buru Batzarreko presidentek hartu eban berbea. Honek esan eban Areatzagaz oso lotuta sen- titzen dala, familia guztia bezala, bertan bizi izan eba- lako txikitatik abertzale giroa. Amaitzeko barauskarria egon zan hurreratu ziran guztientzat.



Itxaso Atutxa Areatzan.

## ARRATIA / ZEBERIO

## Janaria eta dirua batu dabe preminak beteteko



Gurutze Gorrikoak batutakoagaz.

## Erredakzinoa

Arratiako hamalau saltokitan janari bilketea egin eban Gurutze Gorriak abenduaren 14an. Honen bidez, tona bat baino gehiago jateko jaso dabe Arratian egoera txarrean dagozan familien artean banandute- ko. Ekimen honen antolatzaileen espektatiba guztiak gainditu dituala batutakoak, dino Idoia Zuloaga Gu- rutze Gorrikoak.

## Areiltzako Goikoetxea baserrirako dirua

Zeberioko Areiltza auzoan erre zan Goikoetxea base- rriko kaltetuak Burning Zeberio jaialdia antolatu eben dirua jasoteko, hau be, abenduaren 14an. B-T-K-D, Perros kon Asma, RapAcab, Lowkick eta Eskean Kristó taldeak jo eben bertan. "Hotza egin eban zapatuan, baina hara hurbildu zinienezon alkartasunaren berota- sunagaz geratu ginan gu" esan eben antolatzaileak.

## ARRATIA

## Herri eskolak institutuan Konstituzino Egunean

## Irati Urien

Abenduaren 6an Konstituzinoari ezetza emon eustien institutuko ikasleak. Arratiako Ikasle Abertzaleak- ek antolatuta herri-eskolak egin ziran institutuan. Iako kide dan Aitor Asuaren esanetan, "jai egun arrotzari insumisinoa" egitea zan helburua. 10:00etan atea zabaldu eta Txileko ikasle mobimentuaren dokumental bat ikusi eben, gero hamaiketako egon zan Igorreko Axular Herriko Ta- bernan eta 11:30ean mural bat egin eben, "Gora ikasleon borroka! Zorroztu arkatzak eta altxa!" lemaduna.



Gazteak murala egiten.

## ARRATIA

## Ikaskuntzako bitartekaritza zerbitzua

## Erredakzinoa

Lanbide Heziketan formazio ego- kia topatzen laguntzeko ikaskun- tzako bitartekaritza zerbitzua dago martxan Arratia eta Zornotzarako. Edozein prestakuntza inguruko in- formazioa emoten dabe bertan ikaskuntzako bakotxaren proiektua egiteko. Zerbitzua doban da. Har- tu-emonetan ipinteko mberrocal@ fpzornotza.com helbidera idatzi edo 94 403 55 97 telefonora dei- tu daiteke.

**begitu**

publicidadea  
94 631 73 14 eta 649 979 115

[www.begitu.org](http://www.begitu.org)

Gugaz harremanetan ipinteko  
94 631 73 14 eta 649 979 112  
begitu@topagunea.com

## LEMOA

# Ingurumen Sailaren alkarlanerako borondaterik eza salatu dau Udalak

### Erredakzinoa

Lemoan, ingurumenaren kalidadean eragin handia daukien jarduera ekonomiko eta industrial ugari dagoz eta Udala, jarduera horreek indarrean dagozan arauak bete egiten dirala ziurtatzeko, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Saila-gaz batera fiskalizazioa eta kontrol lana era adostuan egiteko lanean ibili da. Baina Jaurlaritzaren aldetik "alkarlanerako borondaterik ez" dagoala ikusirik hau salatutea eta arazoa konpontzeko neurriak hartzea ebatzi dau Lemoako Udalak.

Baimendu bako "zepa" industrialak topau ditu Udalak Lemoa-txeko betelean. Ha ta guzti be, Ingurumen Sailak, enpresek hondakin horreek beteletekiko eroan zitu-tuala dino eta konpondutza josten dau arazoa.

Arazoa urrunetik dator. 2012ko bagilean bilera bat egin eban Lemoako Udalak Jaurlaritzako Ingurumen Saileko arduradunakaz, eta jakin eben espediente bat dagoala Lemoa-txeko harrobia egon zan lur eremuko beteletekuaren jaubea eta

ustiatzailea dan Lurtarri S.L. enpre-searen kontra. Hori dala eta, idatziz-ko informazioa eskatu eutsien Ingurumen Sailari eta Meategien Zuzendaritzeari eskari bat egin eutsien. Baina erantzun ofizialik ez zala egon dinoe Udaletik.

### Baimendu bako materiala

2013ko maiatzean Udalak laginak hartu zituan Lemoa-txeko betelean eta baimendu bako material ugari eta zepa industrialak topau zituen; eta hartutako laginen emoitzen kopia eta "2011ko urtail-lean zepak kentzeako prozesuan antzemandako irregulartasunen aztarnak" heldu arazo eutsazan Udalak Ingurumen Sailari.

Ingurumen Sailak arazoa konpondutza josten dauanez, Lemoako Udalak gertatutakoa salatu eta "arazoa konponduteko neurriak hartzea ebatzi dau". Izan be, "hondakinakaz zerikusia daukien ekonomia jarduera guztiak zorrotasun eta seriotasun handiz kontrol-lau behar dira, jarduera horreek herriarrentzat eta ingurumenarentzat kaltegarriak ez dirala ziurtatzeko".



Saioa Elejabarrieta alkatea eta Idoia Pujana zinegotzia prensurrekoan.

## LEMOA

# Konstituzionalak berretsi dau Atutxari ezarritako kargugabetzea

### Erredakzinoa

Abenduaren 5ean, Auzitegi Konstituzionaleko Osoko Bilkurak, Juan Maria Atutxak Legebiltzarreko presidente ohiak eta Gorka Knörr eta Kontxi Bilbao Mahaiko kideak ipinitako babes helegitearen kontra egin eban, kargugabetzeak eta isunak berretsiz.

Juan Mari Atutxari urte eta erdian kargu publikorik izatea de-

bekatu eta 18.000 euroko isuna ipini eutsan Auzitegi Gorenak 2008n, Sozialista Abertzaleak Legebiltzarreko taldea ez desegitearren. Beste legebiltzarkide biai urtebeteko kargugabetzea eta 12.000 euroko isunak ezari eutsezan. Orduan, Atutxak, Knörrrek eta Bilbao babes helegitea ipini eben Konsitutzionalean, baina honek berretsi dau Auzitegi Gorenaren ebatzia.

## IGORRE

# Bertako produktu agroekologikoen azokea San Tomas egunean

Hilaren 19an eta 21ean, "Arratia elikadura subirautzaren alde" izeneko III. Topaketak antolatu ditu Igitie Baserritar Agroekologikoen Alkartek.

### Erredakzinoa

Eskola jantokien kudeaketa propioa landuko da bertan, berbaldien bidez, egunean; eta zapatuan, produktu agroekologikoen azokea egongo da udaletxeko arkupetan.

Eskola jantokietan, umeai bertako produktuak erabilita egindako jatorduak emoteko proiektuagaz sortu da Arratian Gozaro ekimena. Arratia osoko irakasleez, gurasoez eta ekoizleez osotuta dago Gozaro, eta eskola jantokietan bertako produktuak erabilteko eztabaidea sustatu gura dau. Hori dala eta, Gozarok eta Igitiek gai honen gaineko berbaldiak antolatu ditue hilaren 19rako. Orduan esperientzia honen barri emongo dau Lekeitioko eskolako Jose de la Torre, eta gai honetaz be jardungo dabe Ecolapikoko Txema Hernandezek eta ENEEK-eko Xabier Lejarzegik. Igorreko Kultur Etxean izango dira berbaldiok, arrastiko zazpiretan.

### Azokea eta jaia

Zapatuan, barriz, San Tomas egunean, azokea antolatu dabe Igitiekoak, Gabonetan mahaiak produktu agroekologikoakaz horniduteko. Bertan ortukariak, ogia, pastea, gaztaiak, oilaskoa, marmeladak eta zumoak egongo dira salgai, beste produktu ekologiko askoren artean. Azokea amaitu eta gero, bazkaria; hau be bertoko produktuakaz egindakoa.

Seiretan triki-poteoak eta bederatziretan Herriko Tabernan izango dan kontzertuak ipiniko deutsee

amaieraa elikadura subirautzaren aldeko topaketai.



## IGORRE

# Urkuzuko semaforoa eta zebrabidea kontratazinora atera ditu Udalak

### Erredakzinoa

Igorreko Udalak Urkuzun zebrabidea eta semaforoa ipinteko lanak kontratuzinora atera ditu. Kostua 84.223 eurokoa da eta lanak maiatzerako amaituta izatea espero dabe. Zebrabidea eta semaforoa ipintea herritarrekaz izandako batzarretan urtero errepikatzen zan eskaera zan hau.

Proiektua ez da oraingoa. 2011n Bizkaiko Foru Aldundiak adierazo eban ez ebalu dirurik ipiniko proiektu hau egiteko eta Udalak berak hartu eban ardura hori. Urte bi emon ditu proiektuak Foru Aldundiaren baimena itaroten. "Lotsagarria eta salagarria iruditzen jaku joko politikoa nahastearen administrazinoko baliabideak eta denpora holan alperrik botatea" dinoe Udaleko iturriak.

## ARRATIA

# Beharra topetako gidaliburua argitaratu dau Mankomunidadeak

### Erredakzinoa

Arratiako Udalen Mankomunidadeak gazteai zuzendutako beharra topetako ildoak eta tresnak eskeintzen dauzan gidaliburua argitaratu dau, beharra topetako zeregina antolatu eta egituratzen lagunduteko. Gidak, webguneen helbide eta esteken zerrenda zehatza be eskeintzen dau, herri administrazinokoak zein enpresa pribadukoak.

Liburua lau multzo handitan dago bananduta (bilaketea, dagozan lan motak, nondik hasi eta aukeraketa prozesua), eta aldeaz aurreko ildo batzuk emoten dauz, mobiduten hasi aurretik kontuan hartu beharrekoak; esate baterako, norberaren profil profesionalaren definizioa eta merkaduan dagozan lan-baldintzak, beste batzuen artean.

Zelan egin behar jakon aurre balizko lan-alkarriketa bateri be

azaltzen da gidan, eta zelango curriculumak prestau leitekezan ohiko curriculumen osagarri lez (sare sozialak, bideo-formatuak eta abar). Gainera, curriculumak egiten laguntzen daben webguneetarako estekak be badagoz.

Gidaliburua Bizkaiko Foru Aldundiko Udal Gaztedi programearen laguntzeagaz egin da. Dana dala eta gazteai zuzenduta egon arren, behar barik dagozan guztientzat interesgarria da gida hau.



Gidaren azala.

## BATZ 50. URTEURRENA (I)

# "Izan gara, bagara eta aurrerantzean be izango gara"

Holan dino Batz Kooperatibearen 50 urteurreneko lema. Gaur egun 600 bat beharginek egiten dabe behar Batzen. Automozinorako trokelgintzea, autoetako konponenteak eta energia barriztagarrietarako elementuak egiten ditu Batzek munduan zehar daukazan lanleketan, ingeniari- eta balio erantsia Igorren mantenduta. Eta etorkizuna be badaukala dinoe Batzekoak. Lana ez dala falta. Fagorreko batzuk be hasi dira Igorren lanean eta zezeilan erretiroa hartuko dabena ordezkatzeko, formazino espezifikoak ematen deusie tailerretan ikasle talde bateri.

Igorre eta Arratiagaz lotura berezia dauka kooperatiba honek, eta beti egon da bertako kirol eta kultura ekimenak lagunduten. Aurten, urteurrena ospatuteko maiatzaren 11n atek zabaldu eutseezan arratiarrai, eurekaz mende erdia ospatuteko.

Horretaz berba egiteko, Ander Bilbao Batzeko presidentegaz, Hobekuntza eta Kudeaketa Taldeko Karmelo Uriategaz eta Giza Baliabide Saileko Amaia Fernandezegaz egon da BEGITU.

**Erredakzioa****Arratiako industria egoera txarrean dago, zein egoeratan dago Batz?**

**Karmelo Uriarte:** Azterketak egin beharko leitezke ea Arratiako industria egoera txarrean dagoan ala ez jakiteko, baina gure industrialdeari begiratuten badeutsagu ez dot uste hor negatibidade handirik dagoanik. Askok zarratu egin dabe enpresea baina beste askok indartsu jarraituten dabe.

**Orduan ez dozu txarto ikusten Arratiako industria****egoerea.**

**K.U.:** Ez. Egoerea zein dan kon-tuan hartuta, uste dot ez gagozala hain txarto...

**Ander Bilbao:** Atzen urteotan Batzek bere etxeko lanak nahiko ondo egin ditu: internazionalizazioa, produktu barrietara zabaldu... eta gure egoera lar ondo egon ez arren, ondo dago, eta gure proiektu guztiak asentetan dagoz. Ez gagoz lehengo moduan hazten, proiektuak asentatzen baino. Eta badaukagu beharra.

**Batzek gaur egun, Espainian, Alemanian, Txekian, Txinan,**

Fagorreko behargin batzuk hasi dira Igorreko Batzen behar



Ander Bilbao, Amaia Fernandez eta Karmelo Uriarte.

**Brasilen, Mexikon... leku askotan daukaz lanlekuak. Honek lagunduten deutso Igorreko fabrikeari ala deslokalizazio tentazinoa sortzean dau?**

**A.B.:** Hemen egotearen osagarria da kanpora joatea. Bezeroak hornitzaileak mundu guztian erantzuteko gai izatea eskatuten dabe. Hemen aktibitatea mantenduteko horixe eskeini behar jako bezeroari eta horixe eskeintzen deusagu. Nik uste dot hori izan dala ondino hemen beharra ondo egoteko gako.

**K.U.:** Bezeroak, eurak dagozan lekutik hur egotea eskatuten dabe, ze bestela logistika kostuak asko igoten dira. Uste dot horretan etxeko lanak ondo egin dituela Batzek.

**Momentu honetan, Batzeko produktzioa hiru ardatzetan oinarritzen da: trokelgintzea, kotxeetako piezak eta energia barriztagarrientzako elementuak. Zein izango da Batzen etorkizuneko ardatza?**

**A.B.:** ardatza automozinoan daukagu, baina asmoa dibersifikauta egotea da, hainbat produktu desbardin egitea. Trokelak hemen egin daikeguz, bestelako produktuak hemen eta munduan zehar, baina beti be, ingeniari- ztea hemen eukinda eta balio handiko beharra Igorren mante-

niduta. Holan, gorabehera guztiai egin lekikie aurre, bata bestea- gaz ekilibrau egiten da produktu desbardinak egin ezker. Energia munduan bestelako mundu bat topatzen badogu gure fabrikazino- rako, hurretik hartu ahal dana, seguru hartuko dogula. Horretarako jentea balientea da hemen eta aurrera aterako dogu.

Energian sartzean hasi ginan guk dominetan dogun teknika baten bitartez. Azken finean estanzazioa da eguzki plaketakoa. Trokeletatik estanzazinoan eta estanzazinoatik montaketera pasau gara: hor dago gure arloa, eguzki energia termikorako piezen estanzazinoan eta honeen montaketan. Orduan guk lineak preparau eta montaketea behar dan lekuan egiten dogu, panelak montetan doguz. Guk dominetan dogun teknologia da.

**Automozino da momentu honetan ardatza, zein da autoen merkaturik erakargarriena?**

**A.B.:** Asia izango da eskaririk handiena izango dauan lekua eta gehien produziduko dauana, hazkunderik handiena daukien herrialdeak han dagozalako. Guk geure politikea mantenduko dogu eta han hasi behar bagara produktzioan, han hasiko gara, baina gure ingeniari- ztea Igorren zentralizauta.

**Gure Ikastetxeak**  
Arratiako Herri Ikastetxeak 2 urteik 18ra. Eskalduna, kalitatekoa, herrikoa

**Arratia BHI**  
Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igorre

**Ikastola Arratia HI**  
Tel.: 94 673 90 45 Faxa: 94 673 90 45 Artea

**Zubialde HI**  
Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio

**I. Zubizarreta HI**  
Tel.: 94 673 40 22 Faxa: 94 673 40 22 Igorre

**Areatzako Herri Eskola**  
Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza

**Zeanuri HI**  
Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri

**J.B. Eguskiza Meabe HI**  
Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa

**Ugarana HI**  
Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Mour hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoak, Hezkuntza zikloak

**HERRIKO BENTÄ**  
HOSTAL  
HERRINO PLAZA,  
48142 ARTEA (BURGOS)  
Tel. 94 631 72 56

**Berezitu**  
Gluten eta laktosa bako  
ogi eta gozokiak

Bertan eginda  
Murrizketa bako gogoko kapritxoak  
Eskararak hartzean dira

Lehendakari Agirre Elorbidea, 11 - Igome  
Telefonoak 946 737 280 eta 692 316 166  
www.berezitu.com - berezitu@hotmail.com

**bbk**



**Mondragon taldearen barruan egotea oraintsu arte berme bat izan da, baina gaur egun ez hainbeste. Eraginik izan dau Batzen Fagor jausteak? Eroski jausiko balitz Mondragon talde osoan eukiko leuke eragina. Batzen etorkizuna, Mondragon taldearen etorkizunari lotuta dago?**

**A.B.:** Ez. Mondragon taldean dagoan kooperatiba bakotxa autonomoa da. Taldeak behar doguzan erremintak edo baliabideak eskeintzen deuskuz. Eroski eta Fagorren inguruan medioetan gauza asko agertzen dira, ez dakit nondik aterata. Mondragonen egoteak ez dau esan gura kooperatiba bat jausten bada, besteok atzetik joango garenik.

**Zein egoeratan dagoz Batzeko lanpostuak?**

**A.F.:** Ba orain guztira 600 persona inguru gagoz beharrean Batzen. Sistema arloan, konponenteak egiten diran arloan, 320 Igorren. Eta Fagor aitatu dozunez, esan gura dot badaukaguzala hemen Fagorreko behargin batzuk. Hasi gara behargin batzuk hartzean Igorren.

**Zulaibar ikastetxeagaz be alkarlana egiten duzue. Azaldu apurtxo bat.**

**A.F.:** Nire saileko lankideak ibiltzen dira holango kursoak egiten Zulabiarrekoakaz, bereziki sistema lineetan dagozan personentzat egiten dira ikastaro honek. Formazioa zabaltzeko, ze batzuk beharrean hasi ziranean ez eukien formaziorik eta orain linean behar egiteko Lanbide Heziketa 2 (LH) eginda sartu behar dira. Edo behintzat LH1 edo formazio bategaz. Aspalditik dagozan batzuek holango karentzia txikitxoak daukiezan lez, ba aukera emoten deutsegu formazioa egiteko, Zulaibarrekoakaz batera.

**A.B.:** Beste alde batetik be, trokelgintza arloko kurso berezi batzuk egin dira, jentek planteautakoak, eta gure negoziara bideratutakoak. Hamar edo hamabi persona izan dira bertan parte hartu dabena.

**A.F.:** Talde bi sortu dira eta horreekaz gabiz. Tailerlean dabiz lanean. Zezeilean beharginak hartzeako asmoa daukagu, beste batzuek erretiroa hartzean dabalako.

**Orduan hemen ondino hartzean da jentea.**

**A.F.:** Bai mobimentua badago.

**A.B.:** Ez gagoz hazkunde handian baina lanpostuak mantentzen egiten dira eta jentea jubiletan bada, ba beste batzuk preparau behar dira. Azken finean, ondo presatutako jentea bilatzen dogu. Hainbeste herrialdegaz lehiatzeko, enpresa handiakaz lehiatzeko, balio erantsia daukan jentea behar da.

**Batz oso inplikata dago Arratiako kirol eta kultura munduagaz.**

**K.U.:** Hori historikoa da eta uste dot hasikerako estatutuetan be agertuten dala, bailarako izakerea aberastu behar dogula. Horregaitik urte honeetan guztietan helburuetako bat horixe izan da, eta sortzean diran ekintza soziokultural, kultural edo deportiboetan lagundu dau Batzek. Diru laguntzak egoten dira eta ekintza askotan, nahiz eta banakakoan bazkide askok parte hartzean dogun, Batzek be entidate lez hartzean dau parte.

Adibidez, oraintsu Igorreko ziklo-krosa egon da, eta urtero lez hor egon gara. Nahiz eta sasoi batzuk apalagoak izan, eskastuagoak etekinen aldetik, hor gagoz. Horrek zerikusia dauka enpresa batek egiten dauan aportazioagaz. Ze enpresa baten helburua be bada hori, baina lehenengotik enpresea bera da. Batzen politikea beti izan da bertako kirol eta kultura ekintzai laguntza emotea, eta mantentzen egin da.

**Zer suposatu dau 50. urteurrenak? Maiatzaren 10ean fundatzaileak egon ziran eta 11n, Batzek ateak zabaldu ertsan herriko jenteari.**

**K.U.:** Berrogetabi urte egin behar dodaz hemen, niri urtebete falta jata erretirorako eta datorren urtean jubilaru egingo naz. Aurten sortzaileak eta fundatzaileak etorri dira eta beste batzuk aurretik jubilaru diranak, eta euri entzun deutset sinistu ez egitekoa dala Batzen egin dana. Hareek orain 50 urte, hasi ziranean hasi ziran kondizinoetan, eta gaur egun Batz zer dan ikusita ba... norbaitek zerbaist egin dau, ezta? Norbaitek baino gehiagok. Eta gu be hor gagoz. 50. urteurrenaren leman esaten dogun moduan "izan ginan, bagara eta aurrerantzean be izango gara". Hori adierazoten dau Batzen historiak.

**A.B.:** Ni sano pozik nago, gauzak boluntario pilo bategaz egin dira. Ez dogu handikeriarik egin gura izan, ezin dogu gainera. Baina pilo bat jente egon da gauzak prestatzen, bere orduetatik kanpo lanean, berea emoten gauzak aurrera ateratzeko. Eta parte hartze handia izan zan maiatzeko egun haretan, Batzeko asko etorri ziran eta horrek asko poztu gaitu, ze jentearentzat bere lanpostua baino zeozer gehiago da Batz. Gauzak polito urten dira jentea inplikatu egin dalako.

**A.F.:** Nik be pozik hartu dot 50. urtea ospatutea, uste dot ez dogula beste holangorik ikusiko. Dana emoten enpresegaitik, eta lagunduten ahal dan neurrian, eta ikusi dogunean giroa eta zelako ambientea sortu dan gogotsu ibili gara, ze aurrera egiteko go-go emoten dau.

**K.U.:** Eta akaso beste enpresa



**Batzen 50. urteurreneko ekitaldia.**

"normal" bat izan balitz hau, ez zan izango horrenbesteko parte hartzea. Uste dot Arratiako beste enpresaren baten be ez dala inoz egin, ateak zabaldu eta ekitaldiak eta ekintzak antolatu.

**A.F.:** Herrira zabaldu egin gara eta nik pentsetan dot herrikoak hori eskertzen dabela, nozbehinka ez ixtea atea. Ahal dogun neurrian zabaldu doguz kanporantza enpresea eta ekintzak.

**"Hainbeste herrialdegaz lehiatzeko, enpresa handiakaz lehiatzeko, balio erantsia (formazioa) daukan jentea behar da"**

**Ander Bilbao:** orain dala 12 urte hasi zan Batzen, Trokelgintza arloko ingeniarietan. Kontseilu sozialeko kide eta erretore kontseiluan izan ostean, urte bi dira Batzeko presidente dala, "apur bat ikasten eta gauzak aurrera eroaten". Bilbon jaio zan, eta Barrikan bizi da.

**Karmelo Uriarte:** izatez Zeanurikoa, Ipiñaburukoa, Igorren bizi da. Batzen 1972an hasi zan beharrean. la 42 urte honeetan leku askotatik pasau da eta momentu honetan Hobekuntza eta Ezagutzaren Kudeaketa Taldean dabil.

**Amaia Fernandez Uribe:** Igorren jaio, eta Igorren bizi da. Batzen 2000an hasi zan, Harreran. "Telefonoa hartzean eta harrerako lanak egiten". Gero beste departamentu batzuetatik pasau eta 2008tik Giza Baliabideetako Departamentuan dago.

**FISIOTERAPIA ETA OSTEOPATIA**

**Traumatologia:**  
Hausturak, lokadurak, bihurrituak, mokor eta belauneko protesiak.

**Erreumatologia:**  
Hernia diskala, ziatika, artrosia, artritis, espondilitis anquilosantea.

**Neurologia:**  
Hemiplejia, paraplejia, esklerosi anizkoitza, etab.

**Arnas aparatua:**  
EPOC, bronkiektasia, etab.

**Urologia-ginekologia:**  
Urgentziako gemu-inkontinentzia.  
Esfortzuagatik gemu-inkontinentzia.  
Inkontinentzia anala.  
Pelbis-zoruaren tratamendua.

**Osteopatia manipulatioa.**

**Zirkulazio-aparatua:**  
Eskuzko drainatze linfatikoa, masektomiak, etab.

**Otorrinolaringologia:**  
Bertigoak, zorabioak, etab.

Bizkaifisios SLk bi zentro ditu  
**Fisioterapia Zentroa Igorre**  
Elexalde 4  
Telefonoa 94 631 55 08

**Andra Mari Klinika**  
Fisioterapia Zentroa  
Pontzi Zabala 1, Galdakao  
Tel/faxa 94 457 23 64

**Igualatorioagaz eta era guztietako aseguruakaz egiten dogu behar.**

**5 eta 10 saioko bonoak**

www.bizkaifisios.com

## SOKATIREA

**Galder Gobantes  
Zeberioko tiralaria, Euskal  
Herriko txapeldun taldean****Erredakzioa**

Arrigorriagako Sokarri taldea izan zan Euskal Herriko txapelduna lauko kategorian, 320 kilotakoan. Sokarrin, Zeberioko tiralari bat dago, Galder Gobantes. Abadino, Ibarako talde biri, Ñapurak eta Baigorri nagusitu jakien Sokarri zemendiaren 23an Zallan jokatu-tako finalean.

Zeberioakoak, bere taldea 300 kilotako finalerako sailkatuko dala espero dau. Hauxe da-eta jokatu daben hurrengo Euskal Herriko finala. Lauko txapelketak zemendiatik abendura arte jokatzeko dira eta

urtailatik aurrera zortzikoak. Txapelketa honez gainera, mundiala be jokatu da aurten. "Gabonen ostean hasten da gogorrena, mundialari begira hasten garalako" dino Gobantesek. Mundiala zezeilan izango da Irlandan.



Sokarri taldea.

## FUTBOLA

**Neskak sailkapeneko  
5. postuan dagoz****Ainhoa Duñabeitia**

Arratia futbol taldeko emakumezkoen taldeak azken norgehiagoka bietan puntuak atera ditu. Hilaren 7an Arratiak Bizkerren aurka jokatu eban partiduan 3 puntuak lortu ebazan bi eta huts irabaziz. Hilaren 14an, barriz, Hernanin izan eban partiduan hutsean geratu zan markagailua.

Gizonezkoen lehenengo taldea 4. postuan dago. Hilaren 14an jokatu-tako partiduan, Arangurenen kontrakoan, ez eban punturik lortu Arratiak. Gol bakarra egin eban arratiarrak, aurkarien lau gol jasoz. Aranguren 4 Arratia 1 emoitzeagaz amaitu zan partidua.

Gizonezkoen bigarren taldeak osteran 6 eta 1 irabazi eban atzenengo partidua. Etxean jokatu eban Arratiakoak hilaren 14an, azken postuan dagoan Ermua Anaitasuna IK-ren kontra. Ez eban aukerea galdu arratiarrak eta sei gol egin eutseezan. Hurrengo partidua Zaldibarren jokatu dabe, hilaren 21ean Zalduaren aurka.

## ERRUGBIA

**Zekorrek hirugarren****Ainhoa Duñabeitia**

Zekorrek ezin hobeto dabiz, urte amaiera ederra egiten. Neurketa bat baino ez dabe galdu jokatu dabezan 6 partiduetatik. Beste bat bardindu eta lau irabazi egin dabez.

Atzenenengo hiru astegoienetako puntu guztiak eskeratu dabez arratiarrak. Hilaren 7an Tudelan jokatu eban Funesen aurka. Markagailuko azken emoitzea: Funes 7- Arratiko Zekorrek 34 izan zan.

Etxean jokatu-tako azken norgehiagoketan be gogor eutsi eutsan Zekorren taldeak Irungo taldeari. Gogor egin eban erasoan gureak, zaleen laguntza be ez jakien falta izan eta entseguak lortu ebezan. Partiduko azken emoitzea, 22 eta 0 izan zan. Hurrengo norgehiagokea, hilaren 21ean izango dabe Iruñan, Iruña R.C. taldearen aurka.

**ZEANIKO ANTZERKI TALDEA**

IGORREKO KULTUR ETXEAN  
Abenduaren 26an / 19:00etan

OSTEAN 3 OTZARAREN  
ZOKKETEIA

DOBAN!!!



**IGORREN EROSI**  
arratiako merkatarien elkarte



**begitu**  
arratia ubide zeberio

OPEL  
**Ibaigane, s. Coop. Ltda.**  
Estazioa, 15  
48330 LEIVOA (Bizkaia)  
Tfn: 631 33 30 - 631 31 31  
Fax: 631 36 15

LEHENENGO URTEREKO KURTAN  
%15eko DESKONTUA  
**SESOREAK**  
basolo Emaldi  
ABOKATUA  
Abokatu  
620.57.86.04  
osierabasolo@hotmail.com  
Bilbao-Zeanuri

ARA OTZ  
Lanegun 0 Jartzen!  
Barru Ugarana 2 de - 40011 Dorra - Bizkaia - www.aramoto.com

946.319.008  
658.195.091

**GALANTA**  
zure barruko arropa

**M. JOSE**  
barrutik janzen zaitu



www.facebook.com/galanta.legoia

Agirre Lehendakaria 23  
48.140 Igorre  
galanta@hotmail.es

Gabon zorientsuak opa deusueguz!

**arratiako  
instalazioak s.l.**

Berokuntza - Iturgintza - Gasa

Aireztatzeko sistemak  
Aire zurgatze zentralizatua  
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industrialdea  
Fab. D7  
Tel. Fax. 94 673 62 76  
Tel. 619 736 516  
48140 Igorre Bizkaia

**RUGBY  
TABERNA**

•Egin zaitetz bazkide!  
•09:30etik zabalik  
•Asteburretan pintxo bereziak



arratiko.zekorrek@gmail.com  
http://santxisme.blogspot.com/

## ZIKLO-KROSA

# Manu Quintanilla igorreztarra arratiar bakarra Igorreko podiumean



Julen Zubero Igorren.

txapelduna be jausi egin zan lasterketea hasi eta gitxira, eta ospitalera eroan behar izan eben. Manu Quintanilla igorreztarrek bigarren egin eban Master 40 kategorian. Opel Ibaiganeke Jose Antonio Mazairak beste horrenbeste egin eban Master 50ean. Elite mailan Julen Zubero izan zan ondoen sailkatu zan arratiarra, 10. eginda.

Aitor Hernandezek irabazi eban lasterketea Elite gizonezkoetan, eta andrazkoetan, Rocio Martinek jantzi eban txapela. Kadeteetan Jokin Alberdi mutiletan, eta Irene Trabazo nesketan; Juniorretan, Gotzon Martinek eta Alba Teruelek irabazi eben proba. Masterretan, barriz,

Juan Jose Romero, Pep Gonzalez eta Jokin Mugika sartu ziran lehenengoak euren kategorietan.

### Legazpin Mikel Epalza txapeldun

Abenduaren 15ean Legazpiko neurketan Mikel Epalza izan zan txapeldun Master 30 kategorian. Masterretako beste kategorietan be podiumean egon zan Arratiako ordezkariak. Quintanillak bigarren egin eban eta Mazairak be bai.

Naia Alzola laugarren postuagaz konformau behar izan zan. Igorren hartutako kolpea igarri eban Dimakoak.

### Erredakzinoa

Olabarriko zirkuitua gogorra da eta abenduaren 8an izan zan Igorreko XXXVII. Ziklo-krosean istripu ugari egon ziran. Naia Alzola, Bizkaiko

## MENDIA

# San Justotik Gorbeiarako igoerea seinalizau dau Joko Alai Alkartekak

### Jon Urutxurtu

Abenduaren 14an, Zeanuriko Joko Alai Alkarteko mendi saileko boluntario talde batek San Justotik (Zeanuri) Gorbeiarako igoerea seinalizau eban. Topetako bidezidorretik gora zuzenean markau barik, albotik doan pistako igoeran ipini ebezan bide seinalak. Hurrengo baten Suzien Mendi Klubak –Gorbeia Suzien mendi lasterketearen antolaitzailea– Topetako bidezidorretik doan igoerea, pistakoa baino askoz gogorragoa dana, markauko

dau.

San Justotik gora doan Topetako bidea Gorbeiarako igoteko bide

klasikoetako bat da, baina aspaldi honetan jente gitxik erabilten izan dau, batez be ondo markau barik egon dalako. Horregaitik, bidea berreskuratzea ebatzi dabe Joko Alai eta Suzien Mendi Klubak, hortik Gorbeiarako kurutzera igon gura dauanak galtzeako ezelako arriskurik barik bidea egin daian.



Joko Alai Alkarteko kideak.

## AIZKOREA

# Aitzol Atutxa txapeldunorde

### Irati Urien

Aitzol Atutxak irabazi eban hilaren 1ean Arbizon jokatu zan Abiadurako Munduko Txapelketea. Enbor bat bizkorren nork moztuten eban izan zan kontua. Kanporaketak jokatu ostean Donato Larretxea eta Atutxa II. izan ziran finalera heldu ziranak. Norgehiagoka horretan dimoztarrak arinena bera dala erakutsi eban, eta txapela ekarri eban.

### Euskadiko txapelketan bigarren

Hilaren 8an Euskadiko Lehen Mailako Aizkolari Txapelketan bigarren gelditu zan Atutxa. 1.200 ikusle inguru egoazan Elgoibarreko Olaizaga Kiroldegian, sei aizkolari neurtutik ikusteko prest: Floren Nazabal, Aitzol Atutxa, Iñaki Azurmendi, Jose Mari Olasagasti, Unai Otaño eta Jon Rekondo. Bakotxaren lana lau kana erdiko, lau 60 ontzako eta lau oinbiko moztutea zan. Faborittoa Floren Nazabal nafarra bazan be, Arriarango Iñaki Azurmendik irabazi eban (38m 03s) eta bere atzetik txapeldunorde gelditu zan Aitzol Atutxa (40m 35s). Kontuan hartuta Nazabal izen handiko aizkolaria dala Dimakoak beroni aurea hartu eutsan, eta bigarren postu horregaz etorkizuneko txapeldun ikusten dabe askok. Aitzol Atutxaren esanetan, aurten indarrak nahiko parekatuta egon dira, sei aizkolarietatik lehenengotik azkenengora sei minutu eta zeozertxo baino ez zan egon eta.

Hiru urtean zehar finalistik gaz-



Aitzol Atutxa.

teena izan da Atutxa. Orain dala urte bi, 23 urte eukazala, bosgarren gelditu zan. Igaz, 24 urteagaz, laugarren; eta aurten, 25egaz, bigarren. BEGIRURI adierazo deustanez, "gorantza bidean noa, baina hortik txapela irabaztera salto handia dago". Ilusinoa daukala azaldu dau, horretarako egiten dauala lan, eta hurreko zein urrineko etorkizun baten lortuteko asmoa daukala. "Azkenean amets bat da, txikitan aizkoreagaz hasi nintzanetik beti amestuten dozu final bat jokatuteagaz, eta orain behin finala jokatuta txapela irabazteagaz", dino dimoztarrak. Entrenetan segiduko dauala baina beti be hankak lurrean eukiaz azaldu dau.

### Bizkaiko Txapelketea San Tomas egunean

Hilaren 21ean Bizkaiko Txapelketaren finala egingo da San Tomas egunean, Bilbon. Larrabatzuko kanporaketan sailkatu ziranak egongo dira bertan. Horreetatik hiru arratiarrak: Julen Mendieta, Xabier Garcia "Utxu" eta Aitzol Atutxa.



Hotel Areatza  
★★★ Balneario

Oparia  
topetan

Olentzerotarako?

Aukeratu gure  
Opari bonoak

- \* Logela bikoitza
- \* Gosaria
- \* Zirkuitu termala

52.50€tik aurrera  
pertsoneko bakoitzeko  
Bez barne

Informazioa eta erreserbak: [info@hotelbalnearioareatza.com](mailto:info@hotelbalnearioareatza.com) - 946572705  
Menu Bereziak zure ospakizunetarako.

Bazkaria+zirkuitua, masajeak,  
hidromasajeak...

## BERTSOLARITZEA

Amets Arzallus  
txapeldun

## Erredakzioa

Amets Arzallus Hendaikoa izan zan 2013ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko irabazlea, bigarren Maialen Lujanbio hernaniarrak egin eban abenduaren 15ean BECen jokaturako finalean. BEC beteta, bat egin eben bertsolariak eta bertsozaleak.

Arratiarik ez oholtzan, baina holango txapelketa handi baten bertsozaleak beharrezkoak dira eta hor bai egon zan arratiarik. Aurreko faseetan gai jartzaile taldeko kide izan da Gorka Intxaurbe Zeanurikoa eta finalean be arratiarik ez zan faltau bertsolariak txalotuten. Bertso eskolen garrantzia be aitatu eben finalistak euren bertsoetan.



Amets Arzallus txapelduna eta Maialen Lujanbio txapeldunordea.  
Argazkia: Gari Garaialde.

## BECtiko

Kepa Intxausti  
eta Ibon Iza

Abenduaren 15a, domekea, goizeko 07:00ak, begiak ordu horretan zabalik eukiteko edo parrandan gabizalako edo mendira goazelako izaten da, baina ez ginoiazan mendira, "berbearen gailurrera" ginoiazan.

08:00retako trena hartu, metroa... eta, 09:00etarako hornigoizko jainkosaren kerizpean gengoan, bakarik egongo ginala uste genduan baina bertsozale eta bertsolari batzuk bertan topau genduzan, tartean Jone Uria. Bide batez, zorionak!! Txapelketa itzela egin dozu!!

Zementozko eraikerera sartu ginan eta Lazkanoren koadro hiperealisteari zeharka begiratu kafetegira abiatu.

-Lau ebegi

-¿Cuántos café con leche?

Gauza batzuk ez dira kanbietan... ebagiaren ostean, pabiloiak irentsi ginduzan, hura zan ikusi gura genduan pausajea eta paisajea.

Gure lekutxo hartu eta jentea etori eta etori, sartu eta sartu zelan ebilen ikusi genduan, ai ama nerbioso paretan hasiak gengoan!!

Goizeko 11:00k, ordua heldu zan, danok ezkerreko atera begi-



ra... baetoren Saroi, eta haren ostetik inoz ahaztuko ez dogun Unaiaren arpegia ikustea lortu genduan. Barriro txapelketa itzuliko ez dan Unai lehenengo, beti izan da gure "numberwana".

Beteranoaren ostetik beste zazpi protagonistak, itzela txalo zaparradea!!

Oholtzara igon eta hasi ziran berbeagaz olgetan, ikaragarria!!

**Sustrai Colina:** zuztarrak gogortzen dabilen bertsolaria, neska ederrenari finalerdietan mosua emon eutsena, itxi dau bere aztarra, xarma, arma...

**Beñat Gaztelumendi:** inoz ez dogu bere Altsasuko bakarrek lana ahaztuko: "Ez dostezu ezer esan baina dana esan dostezu", haren bertsokerea estimadu ez daukanak urritasuna dauka. Etorkizuneko txapelduna!!

**Unai Iturriaga:** sortzailea harian, abangoardista, bakarra, unikoa, artista, alde guztietatik, zoragarri.

**Aitor Sarriegi:** kilometro asko egin dauzan bertsolari bikaina, denporeak emon deutso ondo merezi dauan oparia.

**Aitor Mendiluze:** erimak josten maisu, CIA eta Nasa, danerako kapaza!!!

**Igor Elorza:** txukuna, elegantea, jostuna, jostaria, bertsolaritzearen James Stewart-a.

**Maialen Lujanbio:** sentiberatasunaren sehaska, ertzen marrazkilaria, xehetasunetik azalera, pintzelkadaz osotutako mila obra miresgarri egiten inork baino hobeto dakiana.

**Amets Arzallus:** ipar haizea, ama guztien ametsa, aiten eredu, zaharren kuttuna, gazteen idoloa, umeen maitea, ez dago bihotzera hain errez heltzean dan bertsolaririk, apala, zabala, azala, magala. Guztion bertsolaria, Txapelduna!!

Egun gogoangarria, itzela, bihotzeari gordetzen dogun horreetakoa, eta txapeldunetan txapeldunena: gure hizkuntzea.

## KONTZERTUA

Urtea agurtuteko  
kontzertua Areatzan

## Erredakzioa

Areatzako Bandak hilaren 30ean, herrian eta Arratia bailaran sano errotuta dagoan Urte Amaierako kontzertua eskeiniko dau eleizan. Aurten Bandak 30 urte bete ditu eta urtea behar bezala agurtuteko, Luis Iruarizaga eta Txomin

Olague abesbatzak konbidau ditue.

Paula Perez Buenoren zuzendaritzapean, Areatzako Bandak mundu zabalean sasoi honetan kantetan diran soinurik ezagunenak joko ditu Urte Amaierako kontzertuan. "Adeste Fideles", "White Christmas" edo "Hator,

hator" izango dira pieza horreetako batzuk. Arrakasta handia izaten daberen errepertorioko beste pieza batzuk be entzuteko aukerea izango da, "Superman", tartean. Urteari agur esateko, "Radetzky martxea"ren konpasak zarratuko dabe kontzertua.

Areatzako Bandaren Urte Amaierako kontzertua, ikuskizuna be bada, eta aurten, Jonan Armendarizek egingo ditu aurkezle lanak. Entzuleak kantetea eta parte hartzea gura dabe Bandakoak eta "ezustek" be egongo dirala dinoe.



Areatzako Banda.

**indar**  
instalazio elektrikoak

Bildosola Industrialdea, pab. E 3-4  
48142 ARTEA - BIZKAIA  
t. 94 655 47 19  
indarsi@indarsi.es • www.indarsi.es

umean moda

**sem**  
0-16

Agirre Lehendakaria, 27 • 48140 IGORRE  
Tfnoa. 94 631 92 96 • semmoda@hotmail.com

**axular**  
kultur dibertio

Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92  
axularke@gmail.com

**ekin s.l.**  
CONSTRUCCIONES

Iturriotz barrera 8 - 48141 Dima (Bizkaia)  
Tel.: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25  
e-posta: obras@construccioneseekin.com

LAN PUBLIKOAK  
INDUSKETAK  
GARRAIOAK  
UR SAREAK  
SANEAMENTSU SAREAK  
BASERRI ETA BASOKO BIDEAK  
PABELLOAK  
URBANIZAZIOAK

**BIZARGINAK**  
Ulea era klasiko  
eta modernoan  
ebagiten dogu

Bixarra egin eta  
txukunduten dogu

Elejalde, 20 Rober ☎ 630 743 543  
48.140 Igorre Manuel ☎ 661 848 793

AHOLKULARITZA:  
LEGE-LAN ARLOAN

**ZUZENBIDE**

ZERGA ETA DERU KONTRATUAN  
ONDASUN HIRIGIZINEN  
ASIGURULETAN

Beltze Arana, 3. Floor. 94 671 71 41 - Faxa: 94 671 94 41 - 48140 IGORRE

**Pinturas Anatia**

Javi Morato  
Tel. 628 443 992

## KANTUA

# "Berak gu bakarrik gaitu" kantua aurkeztu eben Diman

### Irati Urien

Euskerearen Egunaren harira abesti eta bideo bat egin dabe dimoztarrak. Berez Dimako Udaleko Euskera Arloak dinamizau badau be, herritar danen artean egin dabe lana. Familiak familia, kuadrilaz kuadrila, eta alkartez alkarte euskerearen transmisioa irudikatu gura izan dabe. Euskereak 365 egun euki arren egun berezia dan abenduaren 3an herritar danak agertuko ziran zeozertxo berezia egin gura eben Dimakoak. Ibon Izak sortu dau "Berak gu bakarrik gaitu" kantua letrea, eta Bihotz Gorospek barriz musikatu. Kantuan, azken honegaz batera Jose Luis Aurrekoetxea eta Jose Miguel

Atxa be ageri dira. Erandioko eskolan grabau dabe kantua, Unai Ke-rejeta irakasleagaz. Ibon Izak azaldu dauanez, euskereak gu bakarrik gaituala da errealidadea. Sekulako erantzuna euki dau lanak. Jentea emozinoagaz gustora eta pozik gelditu dala adierazo dau Izak, "herritik urtendakoa eta sortutakoa izan da".

Kantu honen bideoklipa "201 baietz" kanpaina egindako argazkiak osotuta dago, gogoratu dimoztarrak erronka bete ebela eta 201 persona, familia edo lagun baino gehiagok parte hartu ebela ekimen honetan. Kantua entzun gura izan ezkereraren webgunean dago, edo <http://vimeo.com/80787712> helbidean.

## JAIA

# Cotocako Amabirginaren aldeko prozesinoa eta mariatxiak

### Erredakzioa

Arratian bizi diran boliviartzar jatorrikoen alkarteak deituta, hilaren 7an, Cotocako (Bolivia) amabirginaren jaia zala-eta, mezea ospatu zan Arantzazuko San Pedro Apostoluaren parrokian. Berrogeta hamar bat lagun batu ziran bertan, eta mezearen ostean bertaratuak prozesinoan atera eben irudia, mariatxiak lagunduta.

### Boliviatik Arratiara

Euskal Herriko Unibersidadeko

Hegoa institutuak *Estudio-diagnostico sobre las asociaciones de inmigrantes* 2010ean emondako datuen arabera, boliviartzar jatorrikoen bigarren komunitadea jente kopuruaren aldetik, (% 14,93); erumaniazar jatorrikoen ostean, (% 30,22). Gizon baino andrazko gehiago dira Boliviatik Arratia-Nerbioira lanera etorri eta bertan bizi diranak. Eustat-en arabera, andrak % 55,42 eta gizonak % 44,58 hain zuzen be.

## GAZTERIA

# Sugoi Gazte Asanbladea jaio da Diman

### Irati Urien

Dimako Gazte Asanbladea sortu dabe bertako gazteak, Sugoi Gazte Asanblada izenpean. Hamabost bat gazte osotuten dabe momentuz alkarte. Asanbladako kide dan Oihana Aiartzak kontau dauanez, "Diman gaztetxea egonda asanblada bat egotea polita izan leitekela pentsau genduan". Dimagaz zeri-kusi handia daukalako aukeratu eben asanbladea "Sugoi" deitutea; izan be, Baltzolako kobetako mitoan agiri da berau.

Diman ekintzak antolatutea, herriari mobimentu gehiago emotea eta bertako gazteak batutea dira euren helburuetako batzuk. "Hasikeran gatxa izango da, baina ia lortuten dogun", dino Aiartzak umorez. Abenduaren 1ean egin ebezan lehen ekintzak euskerearen egunaren harira, ipuin kontalaria eta mural margoketea izan ziran ekintzak. Olentzero egunean herriko alkarte danakaz batera hartuko dabe parte, eta osterantzean be Gabonetan euren kontura ekintzak antolatu gura dabez.



Sugoi.

## LIBURUA


# Alvaro Rabelliren nobelatxo barria kalean da

### Erredakzioa

Durangoko Azokeagaz batera Alvaro Rabelli zeanuriztarrak *Naia India gorrietan* eleberrirako laburra kaleratu dau Elkar argitaletxearen eskutik. Hauxe da egileak plazaratzen dauan Naia detektibe bilbotarraren bigarren istorioa. Aurrekoa lez, nobelatxo hau Arian euskera ikasteko metodoaren irakurgai mailakatuen bildumarako da, kasu honetan oinarriko A2 mailarako. *Naia India gorrietan* eleberrirako laburra testua, ariketak, berbategia eta CDa eskeintzen deusaz irakur-

leari, eta testu mailakatua dan lez, beren-beregikoa da A2 maila daukien irakurle eta euskera ikasleentzat.

*Naia India gorrietan* polizia generoko nobelea da, arina, irakurtarrez eta abenturez beterikoa. Papiroflexia batzar batera konbiduta egoan gizon bat ezustean desagertu egin da. Haren maitaleak arrastoa galdu dau. Naia detektibe gazteak eta haren laguntzaile Margotek lanak eukiko dabez gizona topetan. Urko ilunpe ezezagunetara eroango dauz kasuak bi neska, baita lur azpira be; Bilboko aspaldiko india gorrietara hain zuzen.



## DUNBA

# Abenduak 3, Euskerearen Nazinoarteko Eguna

### Igorreko Inazio Zubizarreta ikastetxeko 6. A eta 6. B mailako ikasleak

Euskera sano polita dela askori diot aditzen gure eskolan era honetan sarritan gara mintzatzen baina denok batera orain dugu aukera hasi behar dugu handitzen Euskal Herrian bizi bagara hasi bera erabiltzen.

Sekula egon al gara hain zulo beltzean kanpoan erderaz ta bardintsu etxean negarra alperrik da hizkuntzak hiltzean inork ez du egingo guk egin ezean.

Hizkuntza zaharrena da urteak igaro bere etorkizuna beltza da klaro

baina bada hizkuntza bat hitzegin gehiago gaztelania beti alboan pikaro hizkuntza arraro zenbat erreparo galduta zeharo baina argi dago nire hizkuntzarekin gustora nago.

Gure eskola dago beteta aukeraz

gure hizkuntzan bizi behar dugu beraz gaztelania utzi eta egin hegaz zazpi zeruetatik hitzegin euskeraz!!!



## AGENDEA

Abenduko bigarren hamabostaldi honetako ekintza guztiak ez dagoz agenda honetan, Gabonetan egiten dan ekintza piloa dala eta ezinezkoa dalako danak hemen agertzea. 5. orrialdean emoten da herrietan Gabonak dirala eta antolatutako ekintzen barri.

## ABENDUAK 19

## IGORRE

19:00etan, Igitiek eta Gozarok antolatuta "Eskola jantokien kudeaketa propioa" berbaldia Kultur Etxean.

## ABENDUAK 20

## AREATZA

18:30ean urtekerea Euskaldunara, eleiz aurrean. Bilboko Txistu Banda eta Leioako Kantika Korala. AKKBK antolatuta.

## IGORRE

19:30ean, Euskera arloak antolatuta, Igorre kantari kantu-pote herriko tabernetan zehar. Tonbola solidarioa.

## ZEANURI

19:00etan, "Euskal Herria gaur, eta gero?" mahai-inguru politikoa Kultur Etxean.

## ABENDUAK 21

## AREATZA

Mus txapelketa eta gauean Ordago jaia eta Disk Breakers DJ. Mobxo tabernan.

## IGORRE

11:00etan, azoka agroekologikoa udaletxeko ardupetan. Tonbola solidarioa.

## ABENDUAK 22

## IGORRE

20:00etan, antzerkia. Oihan Vega. *Zergatik praktikatzen dugu sexua erderaz*. Lasarte Aretoan.

Tonbola solidarioa.

## ABENDUAK 23

## LEMOA

19:30ean, Aitzol Altuna historialariaren berbaldia, "Arratia eta Bizkaia Nabarrako Estatuan". Gaztetxean.

## ABENDUAK 24

## ARRATIA

Olentzero. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

## ARTEA

Kandelakaz konzentrazioa preso eta errepresaliaduen alde plazan.

## LEMOA

Iluntzean, Tantz tanta poteoa.

## ABENDUAK 25

## LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta urtekerea. Anboto (1.331 m.).

## ABENDUAK 26

## ARANTZAZU

15:00etan, urtekerea Itsas Museora. Doban herriko jente guztiarentzat. Helduentzat bisita gidatuak eta umeentzat ginkana eta jolasak.

## ZEBERIO

San Esteban jaiak Etxazon. 12:30ean, idi probak eta barsaukarria.

## ABENDUAK 27

## IGORRE

19:30ean, hileko azken barikua, Herrirak antolatutako preso eta errepresaliaduen aldeko konzentrazioa.

## LEMOA

19:30ean, hileko azken barikua, Herrirak antolatutako preso eta errepresaliaduen aldeko konzentrazioa.

## ZEBERIO

20:00etan, hileko azken barikua, Herrirak antolatutako preso eta errepresaliaduen aldeko konzentrazioa.

## ABENDUAK 28

## ARTEA

10:00etan orientazio ikastaroa. 18:00etan orientazio proba herrikoia. Gero "Artea Kantuan", Gabon kanta gaua. AKKTK antolatuta.

## IGORRE

20:00etan, Luis Iruarizaga Abesbatza eta Begi Argiak Durangoko Ganbara Abesbatza Lasarte Aretoan.

## ZEANURI

17:00etan, 2013ko auzoen arteko herri kirol lehia frontoian.



## Zeanuriko ermitarik ermitena herri antzerki musikala aurkeztuko dabe 60 zeanuriztarrek

Zeani Antzerki Taldeko kideak abenduaren 19an, egunez, *Zeanuriko ermitarik ermitena* izeneko antzezlanaren estrenauko dabe Andra Mari parrokiak. Hirurogei bat zeanuriztar ibili dira herri antzerki musikala hau prepartetan. Kantuak, dultzainak, bertsoak, koroak eta antzerkia eskeintzen dira ordu bete inguruko antzezpen honetan.

Antzezpenean, parrokia teibistako estudio bihurtuko da lehiaketa baten finala zuzenean emoteko. Saioaren aurkezleak behar gatxa daukie: *Zeanuriko ermitarik ermitena* aukeratu behar dabe eta. Ermita txapelkunak Zeanuri ordezkatzeko dau Euskal Herri mailan egingo dan lehiaketa nagusian. Herri guztia endredauko dabe, ikusleai be botoa eskatzeko deuse zuzenean, ermita bakotzeko ordezkariak alkarrizketatuko dabez...

"Ikusleak, kantu eta barre, konturatu orduko, Zeanuriko ermita guztiak errepasauko dabez, antxinako leiendak ikasi eta une gozo batzuk biziko dabez" dinoe Arratiako Eleizatik.

Saria be zozketatuko dabe bertara hurrerutzen diran guztien artean.

## ABENDUAK 29

## DIMA

Eguerdian, "Tantz tanta olatua".

## IGORRE

17:30ean, umeentzako zinea *Kon-tiki*.

19:30ean, zinea *Gravity* Lasarte Aretoan.

## ABENDUAK 30

## AREATZA

19:30ean, Areatzako Bandak Urte Amaierako zozketua. Areatzako eleizan.

## ABENDUAK 31

## AREATZA

09:00etan, Lamino Mendi Taldeak antolatuta mendi urtekerea. Gorbeia (1.482 m.). Eleiz portikuan.

## DIMA

20:30ean, Dimako errepresaliaduen aldeko zozketea Jentilzubin.

## IGORRE

11:30ean, VI. San Silbestre lasterketea

18:30ean, Gabon Zaharreko manifestazioa preso eta errepresaliaduen alde.

## LEMOA

16:30ean, Eneko Zamalloa memoriale.

Lemoako III. Gabonetako lasterketea

Elizondon. Ondoren, herri poteoa.

## ZEBERIO

09:30ean, Austarri Mendi Taldeak antolatuta,

Tontorrandira igoera eta hamaiketako bertan. Zubialdeko plazan.

## IRAGARKI LABURRAK

## SALDU

## SALGAI

Tabernarako kafeterea eta molinilloa salgai. Gaggia Nera markakoa. 600 eurotan. 619 728 188 (Unai).

## TXAKURKUMEAK SALGAI

Hile biko 4 txakurkume saltzean dodaz. Artzai txakurrak dira. 25 eurotan zure esku! Telefonoa 616 440 185.

## PISUA SALGAI ZEANURIN

90 metro karratu ditu. Hiru logela. PVCko bentana barriak. Barrikuntzak behar dauz baina sartu daiteke biziten. 98.000 euro. Interesdunak deitu 618 557 363 telefonora.

## ETXEA ALOKATZEKO EDO

## SALTZEKO

Urkuzun (Igorre). Kamarea, bizilekua, kortea eta garajea daukaz. Margari 94 673 72 50.

## DANERIK

## AREATZAN ETXEA ALOKAIURUAN

180 m<sup>2</sup> dituan etxe erreformau bat alokairuan, erosteko aukereagaz. Lau

solairukoa: 3 logela, 2 bainugela, txokoa, kamarea eta terrazea. 656 716 560.

## INGELESEZKO ESKOLAK

Ingeleseko eskola partikularrak emoten dodaz Bedian eta Lemoan. Telefonoa 637 754 981.

## TXAKURRENTZAKO LEKU BILA

Nire txakurrak eukiteko leku txiki bat topetan nabil Igorren (680 518 473).

## PISUA SALGAI EDO ALOKAIURUAN

70 m<sup>2</sup>ko pisua salgai edo alokairuan Areatzan, parke aurrean. Gela bi, sukalde, komuna eta egongela. Interesdunak 665 727 881 telefonora deitu.

**Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. [begitu@topagunea.com-era](mailto:begitu@topagunea.com-era). Mezuak doban dira.**

## Begitu-lagunen txokoa

## Zenbaki honetako saridunak:

**1** Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Kibubu* antzezlanerako.

Juan Antonio Menika (Arantzazu)  
Gotzon Idirin (Zeanuri)



**2** Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Zergaitik praktikatzen dugu sexua erderaz?* bakarrizketarako.

Majder Larrea (Areatza)  
Idoia Zuloaga (Areatza)



**g** Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 11


urte eta

ehundaka

lagun.

## DENPORA-PASA

IMAN OLATU




### EZKERRETIK ESKOIERA

- 1.- Astinaldia. 2.- Oxigenoa. Kermen.
- 3.- Opil biribil. Iridioa. 4.- Zaborra.
- 5.- Umeen berbetan, mosua. Lisiba-ur. 6.- Bokala. Arraunketan.
- 7.- Handi. Hamar erromatar.
- 8.- Bastoia. 9.- Persona izenordaina. Ogia egiten dauana.

### GOITIK BEHERA

- 1.- Autoen bozinen onomatopeia. Octavio ..., mexikar idazlea. Azken letra. 2.- Bokala. Barazki bat. Arrainak harrapatzeko. 3.- Gela. Abade. 4.- Odolbako. 5.- Musika notea. Ahal eta gehien. 6.- Arima-etzila. Birritan, lora. 7.- Modua. Birritan, barritsu.



Topau musika klasikoko zazpi konpositoreren izenak.



# AKI MI KO

Iman Olatu



**BIXER TABERNA**  
Beko kalea, 2 - Tel.: 94 631 73 65 - VILLARDO

**ELEKTROARGI ELEKTRIZITATERA**  
Instalazio elektrikoak - Aberiak  
Telekomunikazioak  
Material elektrikoak  
Juan de Ajuriagerra 1 Behea 48330 Lemoa  
Tfnua-Faxa 94 6312576 Mug. 647405115

**AKESOLO, S.A.**  
GARRAIKAK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK  
Garbe, 29 Telefonoa: 94 673 60 14 IGORRE-BIZKAIA

*Los Chopos*  
neurritza egindako armairuak  
Avda. Los Chopos, 35 (Nagari) Tel.: 94 630 40 94  
**Esposizioa eta fabrika Lemoan**  
Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44  
www.armariosloschopos.com

**Orre**  
FOTOKOPIAK - PAPERBENDA  
L. Agirre, 2.  
48140 Igorre (Bizkaia) Tfnua.: 94 673 64 35

**Beer & Edariak s.l.**  
HEINEKEN SOLARES  
Polig. Mendaketa, s/n. 48530 LEMOIA, Bizkaia  
Tel. 609 482 830 Fax. 609 206 717

**NAIARA** Hertz Klinika  
Lehendakari Agirre, 19  
48140 Igorre  
94 631 52 26

**AKEITEGIA**  
**GAY IS LORA**  
IGORRE

\*KIRRU\* ILEAPANDEGIA  
**SOLARIUM**  
Roberto eta Rosana  
Sabino Arana, 38 Beja - 48140 IGORRE (Bizkaia)  
# 94 631 92 00

**Jose Luis Corbacho**  
pintura lanak  
Sabino Arana, 3. 3a 94-673-70-87  
Igorre 48140 Bizkaia 609-79-40-54

**Recreativos Gubi S.L.**  
Angel Larrea  
Zornotza Tfnua 649 86 95 36

**Igorren ARKITEKTOA**  
Aitzol Aurrekoetxea Pujana  
Lehendakari Agirre 23, behea  
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Familia Goitia banatzaile ofiziala  
**San Miguel**  
Ardoak Edariak  
94 673 64 02 Industrialdia E-3 Pabeloia (Igorre)

**GARANTXE Autoeskola**  
TEORIA EUSKARAZ ZEIN ERDARAZ  
Balmenak: A1, A, B1E, B  
Lehendakari Agirre 31  
Tfnua.: 94 673 71 32  
48140 IGORRE (Bizkaia)  
garantxe@euskalnet.net

**L**  
**ARRATIA AUTOESKOLA**  
karneta euskaraz zein erdaraz  
Garbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)  
Telefonoa 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 83  
e-posta: urrozulu@euskalnet.net

## JUANMA LABANDIBAR

# "Nire helburu nagusia momentu honetan disfrutetea da, orain toketan dana bizitea"

Akelarre musika taldeko Juanma Labandibar teklisteagaz egon da BEGITU. Irundarra da izatez, Gipuzkoakoa.

Maitasuna eta musikea zirala medio, Arteara etorri zan ostera. Bere ibilbidea "itxi eta hartu, itxi eta hartu" izan dala kontau badeusku be, hatxean jaioak hatxera gura dauan moduan, Labandibar ezin musika barik bizi. 'Babel Covers' talde barriagaz ikusiko dogu laster oholtza gainean barriro Artean.

### Irati Urien

#### Juanma Labandibar entzun eta Akelarre jatoriku danori burura. Zelan gogoratuten dozu bertako ibilbidea?

1989an sartu nintzan Akelarre taldean. Hamabi urtez egon nintzan han. Teklauri jo eta zenbait abesti kantetan nebazan, egin be bai. Oso giro alaia geunkan taldekideen artean, eta orain be bardin. Urtean behin alkartu egiten gara sagardotegi sasoian sagardotegira joateko. Lagun min asko egin dodaz bertan. Gaur egun bakotzak bere bidea jarraitu dau, baina banan-banan musika munduan sartuta jarraitzen dabe.

#### Talde mitiko horretatik harago, nor da Juanma Labandibar? Eta zelan heldu zan Arteara?

Egia esan Akelarre taldeari esker nago ni Artean. Irunden bizi nintzala Akelarreko Markosek teklista bat behar ebela eta deitu egin eustan.

Froga bat egin eta danak ados zirala bertan hasi nintzan. Orduan, lehenengo uda sasoiari Edurne ezagutu neban, Igorrekoa zan. Bailara honetara hurreratuten nintzanean maite minduta gelditzen nintzan hemeko giroagaz. Hasikera baten, ezkondu eta Irunden bizi ginan. Hamar urte pasau ostean, gure alabeari ikastolara hasteko sasoiari heldu jakonean hona etortea pentsau genduan. Juanma ez dot uste oso personaje publikoa danik, ezagun egin banaz Akelarregaitik izan da. Jenteak gehienbat horregaitik ezagututen nau, Akelarren egindako ibilbide eta urte guztiakaitik.

#### Betidanik ibili zara musika munduan?

Zortzi urteagaz hasi nintzan solfeo eta holangoak ikasten. Hortik 16-17 urtera arte pianoko karrera amaitu neban, baina gero maistregaz hasarratu egin nintzan. 16-17 urteagaz azkenean apur bat errebeldea zara eta ez neban beti pianoa jotzen eta

ikasten ibili gura. Orduan beste gauza batzuk egiten hasi nintzan. Hasikera baten esku pelotan jokatuten hasi nintzan, baina maistreak hori ez zala posible esaten eustan, eskuak apurtuko nebazala. Geroagoan euskal jantzak eta txistuari be eukin neutsen baina hori be ez jakon gustau. Hasarratu egin nintzan, hiru edo lau urte egon nintzan pianoa jo barik. Aurreragoan, auzoko batek sintetizadore bat erosi eban eta esan eustan "sinte bat erosi dot". Ez nekian hori zer zan eta etxera konbidau eustan zer zan ikusteko. Piano moduko bat zan, soinu desbardinakaz. Gustau egin jatan eta diru apur bat aurreztu nebanean erosi egin neban neuk be. Holan hasi nintzan musika munduan. Talde batzuetan jotzen neban, ezkontzetan, herriko plazetan... Beranduago orkestra nafar batera joan nintzan eta handik zuzenean Akelarre. Taldean hamabi urte horreek pasau eta gero ebatzi neban musika mundua profesionalki ixtea. Izan be gure ogibidea horixe zan. Ha itxi neban. Edumeren familian, bai bere aita eta bai bere neba garraio munduan sartuta egoazan, nik karneta neukan eta bertan sartu nintzan, garraioan. Hamar urte emon dodaz horretan eta gaur egun be hauxe da nire ogibide nagusia. Halanda be, ez nago kamioi baten gainean, denpora gehiago daukat eta lagun batzuekaz barriro bueltatu naz musikara. Holangoa izan da nire ibilbidea: itxi, hartu, itxi, hartu...

#### Ume eta guraso artean mastrakea egoten da askotan musika instrumentu bat ikasteko apuntetako orduan. Zuk zure borondatez edo "derrigortuta" ekin zeuntsan pianoari?

Ez, ez. Antza txikitatik kantari ibiltzen nintzan beti; musikea entzuten neban, 'tocabiscos' a ikusita diskoak topetan ibiltzen nintzan. Nik zortzi urte nebazanean, denda bat eukien Behobian amak eta aitak. Ipar Euskal Herriatik etorritako bezero asko etortzen ziran egunero zein astero erosketak egiten, merkeago zan eta.

Euren artean madame Tachaires, gero nire musikako irakaslea izango zana. Akordetan naz egun baten gurasoak beharren egoazala eta ni be mostrador atzean, orduan amak "mira, éste es mi hijo" esan eustan madame Tachaireseri. Nik ia andra hori nor zan preguntatu neban. Piano jole bat dala erantzun eusten, eta ia bere etxera joan gura neban. Baiezkoa izan zan nire erantzuna. Holan hasi nintzan, ez nik eskatuta ez behartuta. Aukera hori emon eusten, eta hor bete-betean asmatu genduan, idea benetan ona izan zan.

#### Konturatu orduko talde barria martxan daukazu lagun batzuk.

Talde batek teklista bat behar eban. Manolo Garciaeren tributoa zan eta tabernetan jotzen eben denporea pasetako. Nigaz taldea osotuta egoala ikusi eta ia zegaitik ez dogun zeozer desbardina egiten pentsau eben. Nik, musikan hainbeste urtetan ibilita, aukera baegoala esan neutsen. Azkenean talde bat sortutea lortu dogu, bost musikari eta seigarrena teknikaria. Nire helburu printzipala momentu honetan disfrutetea da, orain toketan dana bizitea da. Taldean be ondo pasau gura dogu, gustetan jakun musikea egin eta zeozer desbardina lortu. Managerrak be aitatu euskun hemen ikusten ez dan zeozer egiteko. Azkenean, azken 40 urteko talderik ezagunenak zein talde famadu horreen abestirik ezagunenak aukeratuten gabiz. Batzuk jatorrizko hizkuntzan, ingelesa bada ingelesez adibidez. Aukeratu doguzan talde mitiko horreen kantarik entzunenak egiten ahaleginduko gara, ia benetan kapaz garan euren soinua lortuten. Jotzen hasten garanean jenteak hasteagaz bakarrik "hau ezaguna da!" esatea gura dogu. Klaro, atera genduan abestien zerrendea... jotzen hasi eta hiru egunean parau barik jotzen egoteko modukoa zan, itzela. Apur batzuk kendu egin behar izan doguz.

#### Adibide lez, ze talderen kantak entzungo dira?



Euskal Herrian egindako musikan adibidez Itoiz, Hertzainak, Mikel Laboa, Oskori... Modan-edo dagoan Ken 7 be bai. Ingelesez ostera Supertramp, The Police, The Rolling Stones, Bon Jovi... Eagles taldearen Hotel California be joko dogu esaterako, baina kasu honetan euskera onean euskeratuta. Gure helburuak zeintzuk diran jakinda taldearentzako izen bat aukeratu dogu, horretarako propio: Babel Covers. 'Covers' Ingelesetik hartutako berba bat da, bersinoak baino "dra!" egindakoa esan gura dau, holantxe egiten ahaleginduko gara eta. "Babel" Babelko torrea aitatu gura izan dogulako, badakizue hango barri. Musikea bera transmitidu gura dogu, jenteari disfrutatu arazo honegaz. Badakigu adin bateko jentearentzat izan leitekela errepertorioa, baina pentsetan dot tartean sartu doguzala gazteak gustuko eukiko dituen talde batzuk. Nortasun bat euki gura dogu, 'Babel Covers' esanda jenteak "honeek hau egiten dabe" esan daian. Nahiz eta kanta gehienak gureak ez izan, apurka-apurka geure gauzak egiten joango gara.

#### Nozko debuta?

Urtilaren 4an Arteako frontoian. Urri lehenengoan hasi ginan ensaietan, lau hilabete baino ez daroaguz eta gure idea uda partean hastea bazan be aurreratuteko konbenzidu gaitue. Lehenengo emonaldi hori laburpen bat izango da, ordu bikoia. Ez dogu kanta danak abestuteko astirik eukiko, baina bai sorta bat.

 **ekin** S.L.  
c o n s t r u c c i o n e s

25  
urte  
beharrean